

ttipi ttapa

437



**Goizuetako korua
lanean hasi da**

03

Abenduaren 23an egin zuen aurkezpen ofiziala Goizuetako abesbatzak herrian egindako emaldian. Igaratza Apezetxea zuzendariarekin izan gara.



**Mindegiak maisuki
irabazi zuen apostua**

25

Olasagastiren kontrako apostua maisuen moduan irabazi zuen Mikel Mindegiak. Bertze desafioa ere bota zuen, baina min hartu eta momentuz ez du jokatu.

2007ko urtarrilaren 4a • XXVII. urtea



04

PEDRO ESARTE ETA LANDER SANTAMARIA

**Lehengo Baztani buruzko
bi ikuspegi liburuan bilduak**



bai euskarari zozketa BORTZIRIETAN

AINTZAT HAR EZAZU

EUSKARAREKIN KONPROMISOA HARTZEN DUENA!

Abenduaren 21ean, 12:00etan, Arantzako Herriko Etxean eta Udal Idazkariaren aitzinean, zozketatu ziren saritu beharreko 3 zenbakiak. Hona emaitzak:

- 1. Ezpeletako Euzkadi Hotelean asteburu bat** (bi gau bi lagunentzako, gosariak barne), **Atxaspi Hotela**-k emana: **02128** zkia
- 2. Igantziko La Villa Ostatuan bi lagunentzako otordu bat** **Euskadiko Kutxa**-k (Bera) emana: **11967** zkia
- 3. Berako Kirolak Zela dendan 60 euroko erosketa kirol-arropa eta osagarrietan.** **Botxo Ostatua**-k (Bera) emana: **02689** zkia



euskarara



ikasi **k**omunikatu **a**smatu



www.ikanet.net

URTARRILEKO MATRIKULAZIOA

Izena eman:

- Bortzirietako Euskaltegia • 948 637 796
- Malerrekako Euskaltegia • 948 451 555
- Leitzaldeko Euskaltegia • 948 610 776

EPEA: URTARRILAREN 31 BAINO LEHEN

DATUAK...

- Abenduaren 23an egin zuen aurkezpen ofiziala Goizuetako abesbatzak, jendez gainezka zegoen herriko elizan.
- 40 bat abeslari biltzen ditu koruak, Igaratza Apezetxearen zuzendaritzapean.
- Doneztebeko San Miguel ikastetxean musika irakaslea da Igaratza, 32 urteko goizuetarra. Ereñozuko Imanol Kamiorekin hasi zen pianoa ikasten eta Donostiako Kontserbatorioan segitu zituen ikasketak. Gradu Ertaina arte ikasi du, 8. mailara arte.



Igaratza APEZETXEA *Goizuetako abesbatzako zuzendaria*

ARGAZKIA: MAITANE APEZETXEA

ELKARRIZKETA
ELKARRIZKETA

«Kanturako ohitura bada Goizuetan eta koruak arrakasta izan du»

Aitor AROTZENA

Nola joan zen herritarren aurrean Goizuetako Abesbatzak eskaini zuen aurkezpen emanaldia?

Azkeneko urteetan Goizuetan korurik izan ez denez, halako espektazio berezia sortu zen. Jendearen aldetik izugarrizko erantzuna izan zen. Hasieran beldurra genuen elizara inorez zela agertuko, baina bete egin zen. Jendea ilusionatua zegoen, emozionatua, hunkigarria izan zen. Batzuk negarrez ere ikusi nituen. Koruak ere ongi kantatu zuen, kontuan hartu behar da denbora gutxi daramagula eta ostiraletan bakarrik entsaiatzen dugula. Jendaurrean kantatzeari beldur handia zioten, baina oso ongi kantatu zuten, primeran!

Aurretik izan al da abesbatzarik Goizuetan?

Elizan kantatzen zuen korua izan zen garai batean, nahiko ona. Gero, J.J Aizkorbe apezarekin ere ibili ziren. Baina duela 40 urte edo gehiago.

Geroztik halako tradizioirik ez da izan Goizuetan... Zaila al da orain 40-50 lagun biltzea kantatzeko?

Goizuetan beti izan da kantatzeko ohi-

«Ez dugu elitoko korua sortzeko asmorik. Jendeak gustora kantatzea, oinarria hartzea eta ongi pasatzea nahi dugu»

tura eta harritia gelditu naiz zenbat jende apuntatu den. Korua zuzentzeko musikaz dakien norbait behar da eta aurrena Imanol Kamiorekin galdetu zitzaion, Ereñozuko Ozenki abesbatzako zuzendariari. Hark ezin zuela eta niri esan zidaten, baina nik banituen nere dudak, ni ez bainaiz zuzendaria. Baina kantatzeko 51 lagun apuntatu ziren hasieran.

Noiz eta nola gogoratu zitzaizuen Goizuetan berriz ere abesbatza sortu zitekeela?

Kultur Taldeak proposatu zuen eta udan hasi ziren lanean. Horretarako zuzendaria behar zen. Imanol Kamiorekin asko lagundu gaitu eta eskerrak eman behar zaizkio, baita partaideei ere.

Lehenbiziko ekitaldia herrian egin duzue, baina baduzue kanpora ateratzeko intentziorik?

Momentuz erreperitorioa finkatu behar dugu. Jende askoz elizako ospaki-

zuetan kantatzea nahi du, hiletetan, ezkontzetan... Eta gero, trukeak ere egin nahi genituzke, hemendik ateratzeko. Guk herriren batean kantatu eta herri horretakoak Goizuetara etorri kantatzera. Baina lehenbizi erreperitorioa egin behar dugu, lau kanta besterik ez ditugu. Ahotsak hobekiago kokatu behar ditugu eta horretarako Iruñean aritzen den emakume errusiar baten laguntza izanen dugu, seguruenik. Beraz, heldu den udara arte herrian arituko gara.

Inguruko abesbatzen gizonezko gutxi izaten dira. Arazo hori duzue Goizuetakoan ere?

Momentuz 12-14 mutil daude eta ni gustora nago, kopuru polita da eta ahots onak dituzte. Gutxiago apuntatu zirela uste nuen. Gazte jendea gutxiago animatu da, igual korua zerbait serioa bezala ikusten delako. 20tik 60 urte bitarteko jendea dugu, baina gehienak 40tik gorakoak dira. Hauek ez dute musika ikasketarik, baina beldur oso ona dute. Gazteek bai, musika ikasia dute. Gazte eta helduen arteko harreman onak egiten dira eta koruan ongi pasatzeko helburua dugu.



ARGAZKIAK: ONDIKOL

Pedro Mari Esarte eta Lander Santamaria kontent daude, labetik atera berriak diren beraien liburuak erakutsiz.

PEDRO ESARTE ETA LANDER SANTAMARIAREN LANAK

Lehengo, oraingo eta betiko Baztani buruzko bi ikuspegi liburuan bilduak

Baztanen idatzi eta Baztango historia, ohitura eta pertsonaiei buruzko bi libururekin ongiatorria eman diogu 2007. urteari. Lander Santamaria kazetariak, Juan Mari Ondikol argazkilariaren irudiekin “Las cuatro estaciones en el Valle de Baztan (y alrededores)” izenburupean Diario de Noticias egunkarian argitaratutako artikuluen bilduma egin du. Urtaroz urtaro eta hilabetez hilabete, Baztango ohitura zaharrak, pertsonaiak, egun seinalatuak eta bertze hainbat konturen berri eman du. Pedro Mari Esarte Muniain historialari eta idazle ezagunak, berriz, “Como vivían los baztaneses en el siglo XVI” liburua argitaratu du. Izenburuak dioen bezala, XVI. mendeko baztandarren eguneroko bizimodua azaltzen du 400 orri baino gehiago dituen liburu mardulean. Lehengo, oraingo eta betiko Baztanen bi ikuspegi bildu dituzte liburuan, bakoitzak bere estilo berezian.

Aitor AROTZENA

Lander Santamariak, azken bi urteetan, igandero igandero Diario de Noticias egunkarian Almanaque izenburupean argitaratutako artikulua gehienak bildu ditu. Egun zehatzei buruzko ohitura eta bestez gain (zerri hiltzea, San Anton, feriak...), bertze efermeride batzuk ere gogoratu ditu (Omayra Sanchezen heriotza, Hiroshiman erori zen bonba...) eta gure lurralde honetako kontu kuriosoak.

Santamariak egutegian oinarritutako erreposoa egin du, hilabetez hilabete, urtaroz urtaro. Lander Santamariaren ustez, «gure bizitzak, nahi baduzu edo ez baduzu, egutegiaren arabera eta batez ere, erlojuaren arabera, mugitzen dira. Horrela gabilza hain estresatuak eta inora ezin ailegatuz.

Baina, egia da, Bidasoaldea lurraren ziklora arras lotuta segitzen du, gure kultura eta tradizioa. Hori ongi dago eta luzaz izan dadila».

Halere, liburua, akitzen ari den lurralde eta denbora bati buruzkoa dela aipatu du Santamariak. «Garaiak aldatzen dira eta gu ere bai. Begibistakoa da, duela guti arte gure bizian garrantzi handia zuten gauzek, indarra galdu dutela gibelera bueltarik gabe. Horrek batzuri min egiten digu, modu batean gure nortasuna eta berezitasuna izan direnak, kanpoko gauzetatik bereizi gaituztenak galtzen baititugu».

Baserria, sinismenak, Baztan Balleko berezko instituzioak... krisian dauden erakundeak dira. «Duela mende laurden arte ezagutzen genuen baserria krisi larrian dago —dio Santamariak—, Baztanen bakarrik, 500 abeltzaintza esplotazio desagertu dira, errentagarritasun faltagatik eta mantenuak eskatzen zuen sakrifizioarengatik. Nekazariari berean lan egitea eskatzen ahal zaio, baina ezin zaio heroi bat izatera behartu».

Lander Santamariaren idatziekin batera, Juan Mari Ondikolen argazkiak ere biltzen ditu liburua. «Bien lanaren emaitza da, elkar ulertzen dugu, gauzak modu beretsuan ikusten ditugu eta hain gurea sentitzen dugun lurralde honetikiko maitasuna konpartitzen dugu».

Oraingoan, gehien bat Baztanen inguruan aritu badira ere, Bidasoako Herrialde osoari buruzko lanen bat egitea gustatuko litzaiok Landerri. «Hori da garenaren esentzia eta izan behar dugunaren irtenbide eta soluzio bakarra. Hemen, galtza motzeko lokalismorako joera daukagu eta berriki ikusi da ez dugula eskualde sentimendurik. Horrelakoak gara».

PEDRO MARI ESARTEK LIBURUA ERREGE BEZPERAN AURKEZTUKO DU

Urtarrilaren 5ean, goizeko 11:30ean Arizkunenea Kultur Etxean egingen du bere liburuaren aurkezpena Pedro Mari Esartek. Nafarroa eta Euskal Herriari buruz ikertu eta hainbat liburu argitaratu ondotik, azken bi liburuetan, Bidasoa Ikerketa Zentroarekin Baztango ordenantzei buruz argitaratutakoa eta azken honetan, sorterriari begiratua eman dio Pedro Masi Esartek: «Niri beti gustatu zait herriko historia. Elizondoko alkate kargura ailegatu nintzenez, erreibindikazio aferengatik interesatu nintzen, Aldudeko afera... Erregeak Aldudeko jabetza nola lortu zuen jakiteko, mendien erreibindikazioa nola egin zen aztertu nuen. Baina behin kargua utzita eta lasaiagoa nengoenez, Nafarroako Artxiboa bisitatu nuen hogeituzte. Bi gai nagusi

BI LIBURU, BI IDAZLE, BI IKUSPEGI



Baztango historia ezagutzeko eta herriko ohitura eta eskubide zaharren galerrari buruz hausnartzeko aski liburu interesgarriak dira biak.



«Autonomia saldu esklaboagoak izateko»

Bi liburuak eta bi idazleak arras ezberdinak izanik, biak ados daude bertiko Baztan krisian dagoela aipatzeko. Lander Santamariaren ustez, «Baztango erakundeak, Junta Generala, batzarrea, auzolana, Ordenantzak, merkadillo kutre bilakatu diren ferriak... dena gainbeheran dator. Gurea indartzea eskatu dugu beti, gehienetan alferrik. Herriek eta udalek Iruñarekin, Nafarroako Gobernuarekin duten dependentsia gero eta handiagoa da. Gure autonomia eta egiteko moduak saldu egin ditugu, esklaboagoak eta dependienteagoak izateko».

Junta Generalen sorrerari buruzko kapitulua ere bada Esarteren liburuan. Orain, Baztango herrietako alkateak aukeratzeko hainbat arazo daudenean, Baztango instituzioak krisian dau-

dela uste du Esartek, Iruñea eta Madrilen menpeko diren neurrian. «Artzainak ardiak hezi dituzte, hauek beti artaldean dabilta. Estatuak erretzen biltzen diren kontribuzioen jabe egiten da, erretzen kobratzen direnak: petroleoa, argindarra, telefonoa... Tarteko zergak, IVA, IRPF eta halakoak probintziaren esku gelditzen dira, eta kobratzeko zailenak udalen esku gelditzen dira. Zerga horiekin bere gastuen %30a ordaintzen dute, baina gainerako %70a ordaintzeko Diputazioara jo behar dute. Horregatik, udalek Diputazioaren menpe egon behar dute, bere aginduak bete Obedentsia eta sumisioa. Okerrena zera da, udalek errezeta kopiatu eta gauza bera egiten dutela herriekin, kasu honetan Baztango herriekin».

ukitu nituen: Prozesuak eta Notarioen Protokoloak. Baztani buruz ateratzen zen guzia eta Bidasoaldeko afera aunitz bildu nituen. Ez naiz orain nere sorrerira itzuli, Euskal Herria eta Nafarroako historiari buruz ikertu dudanean, herriko paperak ere topatu ditut. Inoiz ez dut herria utzi. Historia ez da kontatu digutena, gertatu zena baizik. XVI. protokoloari buruz 36 bat legajo daude, bakoitza 600 dokumenturekin eta banan banan aztertu ditut. Bertze historialari batzuk, aldiz, gaintetik pasatu dira».

Liburua, orduko protagonistei eskaini die Esartek, okupatzen eta kolonizatzen zituzten tropak sufritu eta ordaindu behar izan zituzten baztandarreri. Ordura arteko beraien bizitza soziala, bere hizkuntza, kultura eta familiariekin ezin izan zutela egin ere aipatzen du idazle elizondarrak: «Godoak godoak ziren V. Mendean, erro-matarrek zuten boterea eskuratu zuten eta godoak ziren XVI. mendean, Nafarroa menperatu zuten. Baztanen, soldadoek mugak zaintzearen truke, mugan hartzen zituzten ondasunen %50a beraientzat zen, aziendak, janariak... Kuarteroak ziren! Orain diren bezalaxe! Orain ere errenta aitortpena egiten dugunean, aitzinetik kendu digutena erreklamatu behar izaten dugu! Baina orain administrazioa bere zerbitzura dute. Kulturari dagokionez, garai horretan analfabetismoa ia osoa zen. Dokumentuek balioa izan dezaten, lurraldea dominatzen duenaren hizkuntzan idatzi behar dira, gaztelera. Hori tragedia da! Eta hau horrela izanda, euskara oraindik bizirik mantentzea, hori miraria da!».

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12

E-31760 ETXALAR (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 54 58

Faxa: (+34) 948 63 54 57

www.ttipi.net

info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidente: Pello Apeztexea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU.

Administrazioa: Amaia Goia.

Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Peio Zestau, Arkaitz Mingegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Laetitia eta Sandrine, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olgarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Maite Oteiza, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...

Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	30 e
Espainia	30 e
Sara (edantegia-okindegia)	40 e
Ipar Euskal Herria	50 e
Europa	50 e
Amerika	108 e
Baztan, Urdazubi, Malerrek eta Leitza	25 e



**Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du**



**Aldizkari honek Eusko
Jaurilaritzako Kultura Sallaren
laguntza jaso du**

● IRAKURLEAK MINTZO ●

Lesakako Gazte Asanbladaren gutuna Lesakako herriari

Denek jakin badaki-gunez pasaden aste-buruan, abenduaren 9an, Lesakan Baztan Bidasoako gazteen lehenengo topaketak ospatu genituen. Goiz goize-tik gazteen parte hartzea eta giro ona nagusitu ziren herrian eta besta giro alaietan igarozen egun osoa. Lerro hauek aprobetxatu nahiko nituzke parte zenueten guztiak agurtu eta datozen urteetarako erlan berean jarraitzeko animatzeko.

Hala eta guztiz ere zoritxarrez dena ez zen positiboa izan eta guztiak lotsagarriak diren gertaera batzuk salatu nahi genituzke hemen-dik. Herri guztiak ikusi-zuen hurrengo egunean herrian egon ziren txikizioak eta guk ezin dugu horren aurrean isilik egon. Igande goizean komertzioetako kristal-ak, zugarramurdiko kontenedoreak lurretik eta abar luze batekin egin genuen topo eta guzti hori gogor salatu dugu. Argi utzi nahi dugu, txikizio horiek ez dutela zer ikusirik gazte egunaren antolakuntzan, alde batetik jende horrek ez zuelako egunean zehar parte hartu, eta bertzetik, jende horren helburua eguna sabotatzeko delako, herria gure aurka jartzeko asmoarekin. Guk argi utzi nahi dugu, herriari eta komertzioetako jabeei, ez dugula zerikusirik gertaera horiekin, eta gure eskutik ihes egiten duen gauza bat dela. Herri

guztiak badaki txikizio horiek nork egiten dituen eta ze helbururekin, ez da lehenengo aldia gertatzen dena eta zoritxarrez pentsatzen dugu ez dela azkeneko aldia izanen, denon esku dago konpontzea eta lortzea espero dugu. Txikizioak burutu dituztenei erran nahi diegu, badakigula nor diren (beti berdina direlako) baina ez dutela lortuko besta giroa sabotatzeko eta guk gure lanarekin jarraitzea.

Denontzako jakina da Gazte Asanbladak zer nolako besta eredia predikatzen duen eta nahi duen herriarentzako. Jai herriko batzuk nahi ditugu, gazteen parte hartzea bilatzen duena, sistemak inposatzen duen gazte pasibo eta kontsumista baten aurrean gazte aktibo batzuk sortzeko helburuarekin. Halaber herri-deekiko errespetua dugu eta denok errespetatuak diren jaiak nahi ditugu. Ez dugu inor baztertirik sentitzea nahi, ez emakumea izateagatik, ezta kanpotarra izateagatik ere. Eta horren harira ez dugu onartzen bere bizia aurrera ateratzeko asmoan dagoen langile baten aurkako erasorik.

Gure iritzia argi gertatu delakoan agurtzen gara, argi utziz ez dugula zer ikusirik gertaerekin eta ez dugula nahi berriz herri-lakorik gertatzerik. Baita ere erran nahi dugu gure esku dagoen guztia egiten dugula horrelako gertaerak berriz ez errepikatuzeko.

**Lesakako Gazte
Asanblada**

Kultur Etxearen afera

Lehenik eta behin erran, agerraldi honek Lesakako kultur etxearekin dauden arazoei erantzuten diola. Garbi utzi nahi dugu hasieratik, zambra eraikinaren inguruan sortu diren iritzi ezberdinak baina aunitz haratago kokatzen dugula egun Lesakan dagoen eztabaida. Azken aldian gure aldirien bidez eta egin ditugun adierazpen ezberdinen bidez, ozen salatu dugu Lesakako udalaren gestioa eta gaur, berriro, gauza berdina errepikatuko dugu: Lesakako udalak daraman kudeaketa, iluna izate-tik haratago, txarra baino txarragoa izaten ari da, herriaren interes-tzat behintzat. Nola ulertu daiteke bertze-la, kultur etxearen proiektua egiteko gastatu diren milioi guztiak ezere-zean gelditzea? Edo eta kultur etxea azken urte luze hauetako lehentasuna izanik bertzelako-makroproiektuen lanei ekitea lehenbizi? Zergatik bada, saltzen dira herriaren ondasuna ziren lurrak, eta orain, jarego pribatuen esku daudenak erosi nahi dira? Erran bezala, hainbatetan salatu dugu, no-raezan dabilela Lesakako udalaren gestioa, eta gaur inoiz baino argiago ikusi daiteke dioguna. Hartara, herriarren diruaz baliatzen dira, gauzak egin eta desegiteko. Kuartel zahararekin gertatutakoa adibide adierazgarria dugu, guzti hau azaltzeko balio duen adibidea hain xuxen. Garai batean, ezker abertzale-tik, eraikin hori herria-

rentzat gorde zedin proposatu zitzaion udalari, kultur etxearen aferari-tenbidea emateko ere balio lezakeelako. Aunitzetan gertatzen den bezala, zoritxarrez guztiak erantzako eta herri guztia-ramonik egin. Denborak arrazoia eman digu. Edo-nola, modu ez garbian eta arin hartzen diren erabaki guztiekin, kriti-koak izan gara eta izanen gara. Orain gutxi, Zambra eraikina, Kultur Etxearen orde-zko balio-garri bezala aurkeztu du udalak. Honen aurrean harridura izan da nagusi gure artean. Alde batetik, hauteskundeak hurbiltzen ari direnez, batzuk berriro ere, erabakiak arin eta modu ez garbian hartzeko tentazioa izan dezaketelako. Horregatik, guk uste dugu, gai hau pazientzia haundiz hartu behar-rekoa dela eta batez ere, herritar guztiak hasiera-hasieratik informazio guztiaren jabe egon eta erabakietan parte hartu behar dutela. Uste dugu ere, Lesakako kultur era-gileek protagonismo be-rexia izan behar dutela. Deus egiten hasi baino lehenago, Lesakako kul-tur eragileen beharrak kontutan hartu beharko dira. Hori kontutan izan-da, erabilgarria den kul-tur etxe bat behar du Le-sakak eta erabilgarritasun hori, Zambran zail ikusten dugu (...). Hagitz grabea litzateke herri-ritar guzrien iritzia kon-tuan izan gabe erabaki bat hartzea. Lasai, uda-lak gai honekiko hartu behar dituen erabakien irizpideak herriak berak markatuko ditu.

**Herria Aitzinera
Plataforma. LESAKA**

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



ARGIA, 2006-12-10

«Euskara teknikariok batzuetan nortasun arazoak izaten ditugu, ez dakigu zer garen! Esatari? Filologo? Aisialdiko begirale? Idazle? Itzultzaile? Eta zerrendan botikaria ere sar genezake, jendeak askotan 'errezetak' eskatzen baitzigu bere arazotxoak konpontzeko. Teknikariak jakin behar du era guztietako gaitzak konpontzen: Hau nola esaten da? Honek ez daki ongi euskaraz eta zer egin behar da? (...) Eta guk botikak behar ditugu zulotxo guztiak konpontzeko».

Dabid ANAUT
Leitzako teknikaria
Argia 2006-12-10

«Gaueko giroan gauza asko daude. Bai, (droga) kontsumitu dut, baina mementu batean, nire irudia garbitzearen edo ez dakit zergatik, enpresak Gizakia Helburu erakundeetako batean sartu ninduen, Hermanin. Egia esan, horretarako beharrik ez nuela uste dut. Enpresa nire gehiegikeriren baten beldur zen, baina sekula ez naiz drogekin gehiegi ibili. Bai, gaueko giroak nire ibilbidea baldintzatu du: emakumeak, alkohola, neurrigabekeriak...».

Mikel GOÑI
Oronozko pilotaria
Berria 2006-12-20

• 11 GALDERA LABUR •

2006. urtea bukatzeaz dago, zer eskatzen diozu 2007ari?
2007an bizitzea.

Gabonak, zer esanahi dute?

Jesusen etorrera ta...gauza hoiek

Olentzeroak opariak ekarri al dizkizu?

Aurten jertse bat.

Zure ume garaian nolakoak ziren eguberriak?

Afaltzen gendun armoni onen ez oain bezela.

Zer diozu egiten ari den eguraldi-ari buruz?

Hau osasuneako hobea da bustie baño.

Familia elkartzeko hori, betidanik ohitura izan al da?

Beti, ttikie nitzenen ere bai, ordun elur haundik itte zittun oain alden.

Argiak eta apaingarriak noiztik gogoratzen dituzu?

Hoik ez zien jartzen lehen, etxe partikular baten jartzen giñun dantza ta geo meza.

"Oilar mezak" ze oroitzapen ekartzen dizu burura?

Aurretik elkartzen giñen neska eta mutilak dantza egiteko Mañenen edo Martiñonen eta meza entzun ta geo gizonak Zubirie joaten zien zopa eta tripotxak jatea.

Uste duzu gaur egun "Jainkoa haurtxoa" jaiotzeko tokirik badagoela gaurko

jendearen bihotzetan?

Jesusen jaiotzak ez du hainbat interesik, olentzero ta festak gehiago tiratzen dio jendeari.

Zu gaur benetako errege magoa bazina zer ekarriko zenuke Aresoko herria eta jendearentzat?

Pakea ekarriko nuke.

Nola gogoratzen dituzu aspaldiko eguberriak?

Afaria ilusio haundiarekin, goxoa izaten baitzen, oilo egosia, turron pixko bat beti izaten zen, gaztain erreke ere izaten genituen... ilusio haundiarekin.



Martina MARZOL LABAYEN
Aresoko amona (90 urte)

borTIRUDI
borTirudi@telefonica.net

KARTELAK · KAMISETAK · BUSERAK · TOSKATERIAK (Nahi duzun neurri - dituzurekin)
FOTOKOPIA DIGITALAK · BUKURRIK · TOSKI-BESTEAK · PLANGAK
ENKUADERNAZIOAK · PLASTIFIKAZIOAK · PEPEPTEAK · BULEGO MATERIALA
DISEÑO GRAFICOA · LOGOOPAK · ERROTALDIAK · INBENTA

Erteora, 26. Etsuinekoa Behea D - BERA - Tel-Fax: 948 631 521

ERREKALDE

PLATER KONBINAZIOAK **OSTALA**
PATEZAK
BOKAZAK

Ongi pasa bestak!

TFNoa: 948 630 259 BERA

& 948 631462
Altzate I • BERA

Xirell

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

LEGARRA

- EGUNKARIAK
- ALDIZKARIAK
- LIBURUAK
- OPARIAK
- TABAKOAK
- FOTOKOPIAK
- ENKUADERNAZIOAK
- PLASTIFIKAZIOAK
- FAX PUBLIKOAK

Egunero irekia

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

ARKUPEAK

Omenaldi hunkigarria Felipe Ganboarentzat

Inoiz baino lagun gehiago bildu ziren urte bukaerako bazkarira

ttipi-ttapa

Arkupeak erretiratuen elkarteak urte bukaerako bazkaria egin zuen Doneztebeko kiroldegian abenduaren 16an. Aukera aprobetxatu zuten 20 urtez elkartearen presidente izan den Felipe Ganboa omentzeko eta inoiz baino lagun gehiago bildu ziren, orotara 1100 bat. Ohiturari eutsiz, besta eguna mezarekin hasi zuten. San Pedro eliza ttikiegia gelditu zen, eta bozgorailuak paratu behar izan zituzten kanpoan gelditu zirentzat. Besta horren kari, Jesus Goldaraz Doneztebeko apezak homilia berezia prestatu zuen, elkarteatsasontzi baten bitartez irudi-

katu zuen, Jainkoa nagusia zen eta Felipe Ganboa berriz kapitaina. Tronpeta doinuak eta bertsoak ere entzun ahal izan ziren ordu bat iraun zuen ofizioan.

HAINBAT OPARI FELIPE GANBOARENTZAT

Meza bukatu eta osatuetan trago bat edan ondotik, jendealdea kiroldegirantz abiatu zen. Bertan, bazkaldu baino lehen, omenaldia eskaini zioten 20 urte hauetan zuzendari lanak egin dituen Felipe-ri. Ordezkeri politikoa anitz bildu ziren tartean Ramon Etxebeste, herriko alkatea, Juan Cruz Alli, Fernando Puras eta Miguel Sanz Nafarroako presidentea, bertze-



Felipe Ganboak, aginte makila hartu zuen Joxe Urroz eta Eusebio Maritoren Arkupeak elkarteko kideen eskutik.

ARGAZKIA: ONDIKOL

ak bertze. Omenaldian hitza hartu zutenek, behin eta berriz goripatu eta eskertu zituzten Felipe Ganboak egindako lanak. Opariak edo orogiarriak ere ez ziren eskas izan. Udalaren izenean Ramon Etxebestek paper zorro bat eskaini zion, Nafarroako Gobernuak berriz ordularia.

Dudik gabe opari ederrenak, Arkupeko kideek egindakoak izan ziren. Joxe Urroz eta Eusebio Maritorenak Felipek egindako lanak go-goaritzen zituen diskurtsoa eskani ondotik, zilarrezko hiru belauntzi irudikatzen zituen maketa eta makila eman zitoten. Omenaldia bukatzeko txalo zaparra-



Inoiz baino lagun gehiago, 1.100 inguru elkartu ziren Felipe Ganboa omentzeko xedearekin.

ARGAZKIA: ONDIKOL

den artean txapela jantzi zioten. Hainbertze opari jaso ondotik elkarteko presidentea zutitu zen eta bildutako jende guzia eskertu. Beti bezala, bestara etorri ezin izan zuten lagun guziak gogoratu nahi

izan zituen, tartean bere arreba. Ekitaldia burotua, bildutako 1.100 lagunak bazkaltzen hasi ziren. 17:30ak aldera bestarekin segitzeko bazterrak animatu zituen Jalisko Band taldeak.

saroha
guztegia ohartzea

17 de artegona 25 bajo 1948-63 08 99
30 00 berrizaberrimaj www.sarobe.net

Lanchas

PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORRAK

Bera - Tfnoak: 948 630 735 - 407 406 781

SAKINAK

Toailak-Mantelariak-Oheko maindreak
Eskolako haurren mantalak etab...
bordatzan ditugu

Herriko bestetarako, kamisetak, eta blue
peña bakoitzaren logotipo eta izenekin
bordatzan ditugu

Etteri Plz. Berriz 4-ra eta ikatu bertako eskaintza!!! Tel: 948 637 660 - 689 481

BERA

Zere inguruak klase guzietako insektuz
(xamorra, zinzurre, armiermo, kukuxa...)
eta erratoi zurgutsez garbitu nahi bodezu,
deitu! Termite eta Pipien tratamenduak

GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 625 587 • Zalain, 42 A • BERA

ZJ

Zalain
jatebxea

Hostala
14 logela,
bainu eta

Zalain 42 A • Berriz
Bera - Nafarroa

BERA

Udalak isuna ordaindu beharko dio Ibardinen erori zen emakumeari

624.548 euro eman behar dizkio paraplegika gelditu zen frantziarrari



PERTSONAIA

Leire TELLETXEA

Gipuzkoako XXVII. akordeoi lehiaketan txapelduna

20 urteko Leire Telletxea Arrasaten abenduaren 6tik 9ra bitartean ospatutako Gipuzkoako XXVII. Akordeoi Lehiaketan lehengo saria eskuratu zuen Senior Mailan. Lehiaketa hau estatu mailan egiten den garrantzitsuenetakoa da eta munduko akordeoilari onenek osatzen dute epaimahaia. Leirek Berako Musika Eskolan hasi zituen musika ikasketak eta gaur egun Euskal Herriko goi mailako musika ikastegian egiten ditu. Gipuzkoako Lehiaketan lortutako garaipenaz gain, 2005ean Sant Anastasi Lehiaketa Instrumentalean senior mailan lehen saria lortu zuen. Aipatu ere, Berako Musika Eskolako Ana Serrano eta Agurne Maritxalarrek junior mailan bigarren eta hirugarren sariak lortu zituzten.

Amaia eta Ainhoa

Ibardingo aparkaleku batean istripua izan ondoren paraplegiko gelditu zen emakumeari, 624.548 euro ordaintzea eskatu dio Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak Udalari. 1999ko abuztuan emakume frantziarra koska batekin estropezu egin eta sei metroko altueratik erori ondotik, paraplegiko gelditu zen. Sententziaren arabera, segurtasun faltagatik gertatu zen istripua. Istripua gertatu zen tokia, aparkatzen zuten ibilgailuak behera ez erortzeko 40 cm.ko koska batekin babestua zegoen baina epailearen arabera koska horrek berak eragin zuen erorketa. Epaia dioenez, koska horrek ez ditu arauak betetzen. Arrazoi horregatik epaileak zantzaz gutxi ikusi du Udalaren ardura dela erabakitzeko orduan.

Ipuin lehiaketa

Abenduaren 15ean Kultur Etxean banatu zituzten Kultur Batzordeak eta Liburutegiak antolatutako Bortzirietako haur eta gazteen ipuin lehiaketaren sariak. Lau mailatan banatu zituzten sariak: A mailan LH



ARGAZKIA: FOTO GOIKO

Barojari omenaldia egin zitzaion abenduaren 18an

Pio Baroja zenaren heriotzaren 50. urteurrena dela eta, hainbat ekitaldi egin dira herri ezberdinetan. Abenduaren 18an, Beran, azken ekitaldiak egin ziren eskultura eta argazki erakusketa baten inaugurazioarekin. Josu Goiak egindako eskulturaren inaugurazioan, Helena Santesteban alkatearen hitzen ondotik, Patxi Zabaletak idatzi eta Josu Goiak berak musikatutako kanta zahar batekin Pio Barojaren heriotzari kantatu zion. Pio Caro Barojak antolatutako ekitaldiengatik eskerrak emanez itxi zuen ekitaldia. Geroxeago "Pio Barojaren unibertsoari begiradak" erakusketa inauguratu zen Kultur Etxean.

3. eta 4. mailakoak sartzen ziren, B mailan LH 5. eta 6. mailakoak, D mailan DBH 1. eta 2. mailakoak eta E mailan DBH 3. eta 4. mailakoak. A mailan Labiaga Ikastolako Aritz Ibarra Dagerrek lortu zuen lehengo saria Argi eta bera lagunak ipuinarekin, B mailan Etxalarko Landagain eskolako Itzaso Elizagoien Bizen-

tek Igra, nire lagun mina ipuinarekin eraman zuen eta D mailan Arantzako eskolako Silvia Telletxea Iraolak Argiren abenturarekin. E maila hutsik gelditu zen.

Abesbatzaren Zuzendaritza Batzorde berria

1987. urtean sortu zen Berako Abesbatzak, Zuzendaritza Batzorde

berria dauka. Jose Mari Telletxea lehendakaria izanen da, Espe Zelaieta idazkaria, Lourdes Astondoa diruzaina eta Gerardo Solano, Fatima Gonzalez, Jesus Goikoetxea, Maria Barredo eta Monica Portu batzordekideak. Abesbatza 31 ahots mixtok osatzen dute eta 2001. urtetik Fatima Gonzalez da zuzendaria.

ANSONEA
Ostatua - Jatetxea
Eguneroko menua eta asteburutar menu bereziak
Terraza estalia eta Ziberkafea
Foruen Plaza 1 - 948 631 155 - BERA

Alberto RETEGI
abokatuak
abokatuak
© 948 630 763 - Alizate, 17 - BERA

LABEZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

LESACA

Ortziraleko Errege Kabalgatarekin akautuko dira Eguberrietako ospakizunak

Ibilaldia egin baino lehen Erregeek Zahar Etxea bisitatuko dute

Aitor AROTZENA

Urteroko ohiturari eutsiz, ortziraleko Errege Kabalgatarekin akautuko dira Eguberrietako ospakizunak. Eguberri bezperako Olentzero eta jaiotza lehiaketak jendetsuak izan ziren, bai partehartzaile aunitz izan zituztelako, baita, igandea izanik, hainbat eta hainbat ikusle izan zituztelako. Lehiaketetan parte hartu zuten Olentzeroekin batera, goizez ikastolako eta arratsaldean, presoan aldekoa karriz karrika ibili ziren. Urte Zahar egunean, Abesbatza «Diestesalbe» kantari aritu zen karriz karrika, hainbat lagunekin batera.

Kultur talde ezberdinak arduratu dira aurtien ere Kabalgata antolatzeaz: Tantirumairu Ikastola eta Irain eskolako Guraso Elkarteak, txistulari eta trikitilari taldeak, Abesbatza, Musika banda eta bertze

zenbait. Eguneko egitarauari dagokionez, 17:00etan erregen postariak erregeei zuzendutako eskutitzak bilduko ditu Plaza Zaharrean. 18:00etan Errege Magoek, musika banda, trikitixa eta laguntzaileekin herrian barna ibilaldia egingen dute. 19:00etan jaiotza izanen da pilotalekuan eta erregeek hurrei harreara egingen diete. Erregeek Andre Mari Zahar Etxea bisitatuko dute ibilaldia egin baino lehen.

Zerbeza besta larunbatean

Urtarrilaren 6an Zerbezaren antolatu dute herriko ostatuak. Tuzenerako bi lagunentzako aste bateko bidaia zozketatuko da. Bidaia urtarrilean egin behar da eta zozketa arratsoko 12etan egingen da. Saridunak bertan egon behar du. Trago bakoitzarekin txartel bat banatuko da.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Jaiotza eta Olentzero lehiaketa arrakastatsua

Eguberri bezpera igandearekin suertatu zenez, olentzero eta jaiotza lehiaketa jendetsuak suertatu ziren. Hainbat talde atera ziren bi lehiaketetan eta hainbat jende bildu zen ikustera. Aurtien Eguberrietako pinurik ez bazen ere, plaza ttiki gelditu zen neska-mutikoen lanak ikusi eta kantuak aditzeko. Olentzero guzien artean, onenak eskuratzen duen Esparza Saria argazkikoak eskuratu zuen. Helduen mailan ere talde hau suertatu zen irabazle eta arratsaldean musika bandarekin karriz karrika ibiltzeko eskubidea eta ohorea izan zuen.



ARGAZKIA: JON ALTZUGUREN

Kultur Etxeari buruzko iritzia eman du Herria Aitzinerak

Kultur Etxe berriaren proiektuaren inguruko iritzia plazaratzeko prentsaurrekoa eskaini zuen Herria Aitzinera plataformak Zambraren atarian. Udalaren politika salatu zuten eta bere garaian ezker abertzaleak kultur etxea egiteko kuarter zaharra herriarentzat gordetzea proposatu zuela gogorazi zuten. Gai hau pazientziaz hartu behar dela eta deus egin baino lehen, herriko kultur eragile guzien iritzia bildu behar dela aipatu zuten Herria Aitzinerako kideek, eskaerei erantzuten dien proiektua osatzeko.

TALLERES BERRIZAUN
GASQUINERA LESACA
IMANOL TELLETXEA ZUZAYA
Tfnoa.: 948 63 74 60 • 31770 Lesaca

XATURETXEA
ZABALA
JATETXEA
T: 948 637 027 • LESACA

IRU BIDE
Estrategia - Asaltor
Bisita: 3 - Lesaca
Tel: 948 637 127

GOJZ-ALDE
ZABALA
Tel: 948 637 127

ETXALAR

Angel Mari Iribarren «Matxine» Lisboa-Dakarerako bidean

Afrikako rally ezagunean parte hartuko du bi iruñearrekin batera

Joseba eta Nerea

Eguberri aski bereziak pasatu ondotik, astelehenean, urtarrilak 2, Lisboarako bidea hartu zuen Angel Mari Iribarren 'Matxine' etxalartarak. Urte franko daramazki autoen munduan murgilduta, baina egun hauetan hasi duen abentura bezalakorik sekula ez du bizitu: Dakar ezagunean parte hartzea. Aurten ez du Paris-Dakar izena, abiapuntua Lisboan duela, baina abentura berbera izanen da.

HASI ETA AKABATZEKO HELBURUA

Iruñeako bi lagunekin batera ekin dio Angel Mari rallyari, Pablo Rodrighez gidariarekin eta Ramon Hervás mekanikoarekin. Berak kopoloto lanak burutuko ditu. Hiru lagunak nafarrak dituen lehenbiziko taldea osatzen dute. Iribarrenek erran digunez, «Lisboatik abiatu eta Senegaleko hiriburura, Dakar-era, ailegatzea da



UTZITAKO ARGAZKIA

Eguberri hotzak

Hotz handiarekin eta jendearen partehartze handiarekin burutu dira aurten Eguberrietako ekitaldiak. Abenduaren 24ean jende parrasta juntatu zen Olentzerero ongietorria egitera eta kalejira polita egin zen trikitilari, txistulari eta hainbat herritarrekin.

gure helburua. Badakigu ez dela batere erraza, desertuan gidatzeak konplikazio nabariak baititu, baina ilusiorik ez zaigu falta». Urtarrilaren 21ean akabatuko den rallyan 15 etapa burutu beharko dituzte eta egun bakarra izanen du-

te atsedean hartzeko, urtarrilaren 13a. Guztira 8.700 kilometro egingen dituzte, horietako 1.900 lasterketan.

LASTERKETA ZAILA

Dakar rally ezaguna hasten duten ibilgailuen herenak bakarrik lortzen

du helmugara ailegatzea, baina espero dugu Matxineren taldea izanen dela horietako bat. Hemendik zorterik onena opa diegu.

ARGAZKIA: AITOR A.

Angel^M Iribarren «Matxine», rallyra abiatu baino lehen.

FLASH

Ela-ela eskean haur parrasta

Urteko azkeneko egunean, ohitura segituz, eskean ibili ziren herriko haurrak. Etxez-etxe urtatxak biltzen pasatu zuten goiza «Ela-ela» abesti ezaguna abestuz.

Kontzentrazioa urteko azken egunean

Euskal presoak oroituz, kontzentrazio isila egin zen urteko azkeneko egunean Herriko Etxeko arkupean. Koadrila polita bildu zen, hainbat arrazoi dela eta, egun hauek gure artean pasatzerik izan ez dituztenak oroitzeko.

Larraburuko txokolatada

Larunbat honetan, urtarrilak 6, haurrentzako txokolatada izanen da Larraburua jubilatuko elkartean. Urtero bezala, haur parrasta elkartuko da ongi berendatu eta opariak hartzera. Hitzordua arratsaldeko 5etan paratua dago.



arropak - maindireak
mantak - nordikoak
toallak - kortinak
alfonbrak

Goya

Bera

Altaia, 5 - Tel: 948 630 083

MERTZERIA

Leñe

LENTZERIA

Tel: 948 627 514

Betako Plaza, 10 - LESAKA

Larkilanak

ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA

ETREBILTZE PROIEKTUAK
URRANTZATZE PROIEKTUAK
ETXE BERRITZEAK
LABORAK
KONSULTAK
INFORMAZIOA, ETZ

SANTIAGO 55 2ºB ELIZONDO TEL: 948 381 831

USOA

nekazari kooperatiba

ganaduarentzat
pentzurik egokiak

Tel: 948 635 214 - ETXALAR

BEKO

Lore eta landareak

Frain auzoa - LESAKA
Tfnoa: 948 637826

ARANTZA

Hiru olentzero bizkarrean hartuta ohiko ekoitaldiak egin dira Eguberri egunetan

Herriko eskolako saritu mordoxka izan dira Berako ipuin lehiaketan

Nerea ALTZURI

Gibelean utzi dugu Urte xaharra. Urte Berriko lehenengo egun hauetan, Eguberrietako ohiko ekoitaldiak gogora ekarriko ditugu. Abenduaren 24ean eta 25ean betiko ekimenak egin ziren herrian. Eguraldi hotza zinez. Tira, neguan gaudenez gero... Hala ere, aroa ez zen oztopo izan joan den Eguberri bezperan. Herriar aunitz bildu zen Olentzerori harrera egitera. Gaztetxo, gazte eta heldu, ia gehienak baserritarrez jantziak, Eguberrietako kantuak kantatu zituzten karriketan barna. Gregorio Mitxelena akordeolaria soina jotzeaz arduratu zen. Geldialdi batzuk eginenez (Larreta, Aterpea, Osiñaldeko ataria, Martixeneko ataria, Goko Karrika, Urdinbaitako ataria, Pisuta, herriko plaza) ordu eta erdiko ibilaldia egin zuen kantari taldeak. Guzira hiru olentzero erakutsi dira aurtan: herriko es-



ARGAZKIA: MARTA ITURRIA

Ordu eta erdi iraun zuen ibilaldia egin zuen kantari taldeak herriko karrika eta etxe atariak alaitzen.

kolakoa, Gazte Asanbladakoa eta Ekaitza elkartekoa. Olentzeroak bizkarrean hartuta eta zintzurak astinduz, giro ederrean igaro zen arratsaldea. Ilundu orduko, berendua Zahar Txokon prestatua zuen Guraso Elkarteak. Mokadu bat tragoxka batekin ez zen gaizki etorri, ez!

Biharamon eguerdian ere lagun andana bildu zen herriko plazan olentzerori agur errateko. Jokuak, kantuak, dantza, sua... betiko tradizioari eusten zaio herrian ere.

Errege Kabalgata

Dozenaka urte ditu Errege Kabalgatak ere.

Urtero-urtero ilbeltzaren 5ean kabalgata prestatzen da. Horretan ere, lagun talde bat arduratzen da Ekialde urrunetik datozen Meltxor, Gaspar eta Baltasarri harreraren egiteaz. Beraz, ortziral honetan, mezaren ondotik, ilunabarreko 8ak aldera eta elizan, hitzordua izanen da. Lehenik, ordea, herriko ka-

rriak pasatuko dituzte. Elizan opariak banatuko dituzte Errege Magoek.

Idazle sarituak

Joan den abenduaren 15ean, Beran, Kultur batzordeak eta liburutegiak antolatutako ipuin lehiaketako sari banaketa egin zen. Aurkeztutako lanen artean, herriko eskolako lau gaztetxok sariak eraman zituzten. Hirugarren eta laugarren mailakoen artean, Sara Almandoz Lukanbio Exkerreneko-bordakoa, "Argiren abenturak" izeneko ipuinarekin saritua izan da. DBH-1 eta 2. Mailetan berriz, hiru sariak herri-erori dira. Hiru ipuin sarituak hauek: Ontse-neko Itxaro Etxague Goiaren "Baserri misteriotsua"; Otsarrako Amaia Lukanbio Larretxearen "Baserri ezezaguna" eta Gaikoeneako Silvia Telletxea Iraolaren "Argiren abentura". Zorionak, beraz, idazle gaztetxoei.

TOLDOAK salmenta-konponketa-alokairua-errotulazioa
MOSKITERAK-PERTSIANAK motorizatuak-venecianak
PVCzko LEIHO eta ITXITURAK

Tel-Fax: 948 631 003
Bidaxoa, 66 behea - BERA

PIKABEA
harategia
janariak

Aran, 7 BERA • 948 631 004

BORTZIRIAK

Oihan Canabal igantziarrak irabazi du Bai Euskarariren zozketako lehen saria

Aurtengo kanpaina Bortzirietako eragileek 15.000 txartel banatu dituzte

ttipi-ttapa

Bortzirietako Euskarra Mankomunitateak Bai Euskarariren kanpainako zozketa egin zuen abenduaren 21ean Arantzako udaletxean. Azken egun hauetan 15.000 txartel prestatu zituen, Bortzirietan Bai Euskarari ziurtagiria duten eragileek beraien bezero, ikasle edota bazkideei banatzeko.

Lehenbiziko saria Ezpeletako Euzkadi Hotelean bilagunentzako asteburu bateko egonaldia, Atxaspi Hotelak eskaini zuen. Zenbaki saritua 02.128 suertatu

zen, eta Bortziriak Pilota Eskolak banatu zuen bere bazkideen artean. Dagoeneko ezaguna da sari honen irabazlea, Igantziko Oihan Canabal pilotari gaztea.

Bigarren saria Igantziko La Villa Ostatuak eman zuen, hain zuzen ere bertan bi lagunentzako otordua. Saridunaren izena ez da oraindik ezaguna, baina 11.967 zorbakiak irabazi du Berako Euskadiko Kutxan eskuratu-tako txartelari esker.

Hirugarren saria, Berako Kirolak Zelak eskaini zuen, bertan eros-



ARTXIBOKOA

Taldekako bertso lehiaketa urtarrilaren 12 eta 13an Bortzirietako bertso eskolak taldekako 9. lehiaketa antolatu du. Urtarrilaren 12an, ortzirala, 20:30ean lehen saioa egingen dute Iñigo Olaetxea, Estitxu Fernandez eta Ander Zubitak, Berako taldea osatzen duten Julen eta Taberna anai-arreben aurka. 22:00etan afaria izanen dute Espidobaitan eta ondotik iazko txapeldunak, Silveira anaiak eta Oskar Goñi; Estitxu Arozena, Josu eta loarren aurka arituko dira. Urtarrilaren 13an, 13:30ean bazkaria izanen dute Kattun eta ondotik, Erika, Terre eta Lopez; Barberena, Alazne eta Maialenen kontra arituko dira. 16:30ean Xarutan, Etxabe, Manolo eta Egoitz; Bittor, Elizetxe eta Ikerren kontra arituko dira. Ondoren finalerdiak jokatu dira, 18:30ean Haizegoan eta 20:30ean Atxaspin. 22:00etan Lindurrenbordan egingen den afariaren ondotik jokatu da finala. Otorduetara apuntatzeko 618 963011 telefonora deitu behar da.

ketak egiteko 60 euroko saria. Txartel sariduna Botxo Ostatuan banatu zen eta 02.689 zorbakia darama.

Bigarren eta hirugarren loteen irabazleek

hilabete bateko epea izanen dute haien sariak eskatzeko. Horretarako Mankomunitatera deitu beharko dute, urtarrilaren 2tik aitzinera, 948634125 telefonora

edo txartela eman dionarengana jo. Urtarrilaren 21erako ez badira saridunak agertu, zozketa honetan atera diren ordezkio zorbakiei emanen zaie aukera.

1951tik lentzeria-etxea
Casa Cambra
Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

edredoi-azal nordikoak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
albornozak
maidireak
kuxinaktoailak
mantelak

EDREDOI-NORDIKOETAN ESPEZIALIZATUAK

DONEZTEBE

Doneztebarrak Merkatarien Elkarteak logotipoa aukeratu du

Juan Ostizen marrazkia eta
«Zurekin beti» leloa hautatu dute

ttipi-ttapa

Doneztebeko ostalaritza, merkataritza eta zerbitzu emaileen elkarteak erabiliko duen logotipoa aukeratu du. Baztango eta Berako elkarteek bezala lehiaketa deialdia zabaldu zuen baina aitzineko biak ez bezala, helduei zuzendu ordez haurrengana jo zuen. Hori dela eta, San Migel eskolako haurrek aurkeztutako hainbat marrazkien artean, Juan Ostizena hautatu dute. Horri esker, Alvaro Matxinbarrenarekin hilabete bateko marrazki ikastaroa irabazi du artista gazteak. Leloari dagokionez, erraz oroitzen den esaldia aukeratu dute, "Zurekin Beti". Parte hartzaileen artean, Bertiz Abentura Parkean goiz bat igarotzeko 25 txartel banatuko dituzte: bat logotipo lehia-

ketaren irabazlerentzat izanen da, berteze bat, leloa asmatu duenarentzat eta berteze 23ak zozketa baten bidez erabakiko dira.

Errekaren urte bukaera

Erreka Kirol elkarteak modu indartsuan bukatuko zuen urtea. Abenduaren 31n, ohikoa den Mendaurrera igoera egin zuten, eta mendizaleek tontorrean behar bezala ospatu zuten urte berriaren etorrera. Aurtengoan, berrietasun gisara, arratsalderako Errekak Doneztebeko I: San Silbestre lasterketa antolatu zuen. Korrikalariek lau kilometroko ibilbidea osatu zuten herrian barrena. Lehendabizikoentzat sariak eta parte hartzaile guzientzat kamisetak bana izan zen.



ARGAZKIA: GOIZALDE URDANPILLETA

Doneztebarrak merkatariei elkarteak aukeratu dituen logotipo berriarekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Errekaren saskia M^a Dolores Mitxelenarentzat
Abenduaren 22an, Errekaren Eguberriko saski paregabea zozketatu zen. Zenbaki saritua 3653a izan zen eta Beran bizi baina sortzez sunbildarra den M^a Dolores Mitxelenak eraman du bere etxera saskia. Argazkian Leire Uterga Errekaren izenean, M^a Dolores Mitxelenari saskia ematen.

ERROTAZAR
harategia

Bertako
produktuak

Eztegara, 3 - BERA
Tel/Faxa: 948 630 088

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegaitasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bititria, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 404
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

Itusia
HIDROREINTZA
HIDROSIEMBRA

FERMIN MANTOINERA
LARRALDIA

948 637 214
948 637 194

SUNBILLA

Herriko pilotari gazteek denboraldi bikaina egin dute

Jaione OTXANDORENA

Herriko pilotari gazteek, eskualdeko hainbat txapelketetan parte hartu zuten 2006an. Iker Espelosin, 8 urteko mutilak, zortzi txapelketetan parte hartu zuen eta horietako seietan finalera iristea lortu zuen eta bertze bietan berriz, finalerdietara. Hiru txapel irabazi ditu: Ezkurra memoriala, Sunbillako txapelketa eta Belateko txapelketa. Lizarrako, Urrozko eta Baztango txapelketetan, finalera iristea lortu zuen nahiz eta gero finala galdu, eta Zizurko eta Burlatako txapelketetan berriz, finalerdietara ailegatu zen. Bere anaia Andoni Espelosinek eta Aimar Lastirik txapel bana lortu zuten Sunbillako txapelketan. Liher

Lastirik Urrozko txapelketa irabazi zuen eta Julen Juankorenak Errekako binakako txapelketa irabazi zuen. Iñigo Agestak ere Sunbillako txapelketan finalera iristea lortu zuen.

Margo erakusketa

Ramon Latasaren eskultura egiteko dirua biltzeko egin zen margo erakusketa eta salmentak arrakasta handia izan du. Erakusketa 20 margorekin ireki zen, eta ikusirik guztiak saldu zirela, beste 7 margo ekartzea erabaki zen. Azkenean 22 margo saldu ziren. Elizondoko Juan Lameriñasek emandako argazkiak ere saldu ziren eta Sunbillako Rikardo Arretxeak utzitako herriko argazkiak ere arra-



ARGAZKIA: JAIONE OTXANDORENA

Iker Espelosin, Andoni Espelosin, Julen Juankorena, Liher Lastiri eta Aimar Lastiri, gustora beraien sariekin.

kasta handia izan du, hainbat argazki saldu baitira. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete parte hartu duen jendeari, margolariei, argazkilariei, erostunei eta erakusketa ikustera urbidu den jende guztia-ri ere. Margo erakusketa honekin, Latasaren eskultura egiteko beste 20.300 euro lortu dira.

Ipuin lehiaketa

Eskualdeko ipuin lehiaketa joan den abenduaren 20an bukatu zen Donezteko eskolan.

Partu hartu zuten gaztetxo guztiak txokolatada izan zuten eta ondoren irabazleen izenak erran zituzten. Sunbillako Unai Bereauk lehen postua lortu zuen bere mailan, «Urrezko arraultzadun oiloa» ipuinarekin eta Eneko Herrierak berriz bigarren postua lortu zuen «Moritz baserrian» ipuinarekin.

Iñautetako prestatetak

Poliki poliki badatoz iñauteak ere eta herri-

ko giroan nabaritzen hasia da prestakuntzetan hasiak direla hainbat kuadrilla. Emakumeen afariaren antolatzaileek jakinarazi dutenez, aurtengoan afalostean, karrakez gain, ez da beste sorpresarik izanen eta datorren urterako afariaren planteamenduak ere aldaketa batzuk izanen ditu. Ideia berriak bazeuden emakumeen afarirako, baina antolatzaileek datorren urterako uztea erabaki dute. Beraz aurtengoan talde bakoitzak segi de-

Lizun
GAZTANDEGIA

Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda • SUNBILLA • Tel: 948 450 862

ZUBIONDO JATETXEA

Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

Javier Manterola
Teléfono: 948 625 472
Burgos • gas • telefonos
tel: 921 449881
Cruce de la 4.ª, b.º 1.º • BERA

PAGOLA
EMBUTIDOS
artesanos desde
1940

Altzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

udana
salsas

UNE-EN-ISO 9001
IAC
SISTEMA DE GESTIÓN DE CALIDAD CERTIFICADO
SCC-02-0199

**Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gaztua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest**

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

GOIZUETA

Kultur Etxearen proiektua aurkeztuko du Udalak Iruñean

Zinea kokatua dagoen lekuan eraikiko litzateke

Esteban AROTZENA

Kultur Etxearen proiektua ondorengo egunetan aurkeztuko dio Udalak Nafarroako Gobernuari, honek horretarako luzatutako deialdiari erantzunez.

Udaberrian hasi omen zen udala gai honetaz hitzegiten Iruñeko Kultura Departamentuarekin. Urrian jaso zen hango berria, proiekturako 15.000 euroko dirulaguntza onartu zutela esanez, hain zuzen. Epea berriz, oso estua zen, 2006. urtearen barrenean bukatu behar baitzen egitasmoa. Jon Uitzik zinegotziak esan zigunez, honetaz asko baldintzatu dituzte korporazioaren as-

moak, herriko erakunde guzien iritzia jaso nahi baitzuten proiektua egin aurretik.

Balitzko Kultur Etxe-ari buruzko xehetasunik ez daukagu oraindik. Esan dezakegun bakarra zera da: gaur egun zinea kokatuta dagoen lekuan eraikiko litzatekeela areto berria, eta herriko premia guzietatik aurreratu egiteko haina leku izanen lukeela bere baitan.

Dena den, Uitzik esandakoaren arabera, ez omen da komeni dagoeneko ezkilak jotzen hastea, egitasmoa subentzionatzeak ondorengo obrarako dirulaguntzarik ez baitu ziurtatzen.

Altsasuko enkantea

2004ean markatutako hiru pinu lote eraman zituen herriak abenduaren 15ean Altsasun burututako enkante batera, baina ez zen alerik saltzea lortu, ezta bigarren deialdian hasierako prezioa %10ean jeitsi zenean ere. Hau ikusirik, Goizuetako ordezkariak subastatik erretiratu egin zituzten loteak, hirugarren deialdira (%20ko jeitsiera) aurkeztu gabe, alegia. Ondorengo asteetan aterako omen ditu Udalak enkantera berriz, hiru mendiak, baina oraingoan bere kasa.

Hauk direla Altsasura eramandako herri-



ARGAZKIA: MAITANE APEZETXEA

Pilotazaleen pozerako, noiznahi ematen dugu orri honetan herriko hainbat mutil kozkorrek lortutako zapelen berri. Azkenekoa, Aurizberrietik ekarri du 12 urteko Julen Arozenak, Otamendiri 16-13 irabazita, abenduaren 23an jokaturako finalean.

ko matarrasak: Zumarrarena, 3.036 metro kubiko, 144.573 euroko prezioan; Ikatzola, 6.543 metro kubiko, 261.733 eurotan; eta Easporru, 5.293 metro kubiko, 182.261 eurotan.

Korua

Eliza gainezka betezuten herritarrek abenduaren 23ko koruaren aurkezpenean, baita txalo sorta ederrak jo ere. Hilaren 12an ekingo diote denboraldiari.

ARESO

Gabonetako ohiko ekitaldiak ospatu dira egunotan

Juana Mari SAIZAR

Gabonetako garaiko ekitaldiak izan ditugu egunotan: herria apainduta, plazan jaiotza, olentzero buseko paradan (aurten geldirik, mugitu gabe), gabon egunetan olentzeroren etorrera, umeei opariak eta ilusioa ekarri, eta ho-

nen aurretik herriko haurrak Jaione Olazabalen musikarekin etxe etxe eskean ibili ziren. Aurtengoan 451 euro bildu zituzten eta aurreko urtean bezala, Nikaraguako haurrak apadrinatuko dira. Lehengo urtean bi egin ziren eta aurtengoan, diru gehiago bildu denez, hiruga-



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Etxez etxe eskean ibili ziren haurrak Eguberrietan.

ren bat. Umeei egindako ekitaldia da baina, azken finean, Aresoko

herriaren izenean apadrinatu dira. 2007. urtean bizitza hobea izan-

go dute hiru haurtxo horiek. Eskerrik asko denei!

ARANO

M^a Jesus Zabala eta Esther Legarreta garaile Eguberrietako mus txapelketan

Hamasei bikotek parte hartu zuten Kontzejuan abenduaren 15eko lehian

Kontxi KLABER

Abenduaren 15ean, ostiralarekin jokatu zuten 16 bikotek kontzejun antolatutako mus txapelketa. Parte hartzea bikoteko 12 euro kostatzen eta goizaldera arte jokoan ibili ziren. Txapelak M^a Jesus Zabala eta Esther Legarreta izan ziren, hauen saria eguberrietako zestua banatzeko eta litro terdiko txanpain botila bakoitzarentzat. Bigarrenak, Roke Ansa eta Antton Mari Ansa, bina txuleta eta bina botila txanpain eta hirugarren bikoteak Goizueta-ko Tomasena eta Eustakitok ardo eraman zuten. Lan bikaina egin zuten Emaiz eta Enkarnik hamar eguneko oporraldiari txikiari hasiera eman aurretik.



ARGAZKIA: KONTXI KLABER

Olentzeroa auzoz auzo eta etxez etxe

Urtero bezelaxe herriko gazteek eta gaztetxoek olentzerorekin Aranoko auzoak etxez-etxe egin zituzten kantuan. Aurtengo saskia Bentaberriko Xebastianari suertatu zitzaion.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerrek S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

LEITZA

Leitzaldeko Gazteen topaketa egin zen hirugarrenez abenduaren 16an

«Herri bat, Gaztetxe bat» izenburupean bildu ziren

Joseba URKIOLA

Abenduaren 16a Leitzan egun handi eta gogoangarri horietako bat ospatu zen. Protagonistak Leitza, Areso eta Goizuetako gazteak izan ziren. Elkarlanean bidea xede eta "Herri bat Gaztetxe bat" lemapean, Gazte Topaketak egin ziren hirugarren urtez.

Aurreko urtean Goizuetan bildu ondoren, aurten antolaketa Ate-kabeltz gaztetxeko leitzarren esku egon zen. Eguerdi partetik aurrera, goizaldeko ordu txikiak arte ekitaldiz betetako eguna izan zen. Hasierako ekitaldia 11etan burutu zuten. Ondoren joko eta algara batzuk tarteko, Bertso bazkariaren txanda iritsi zen. Bertsolariak Miguel Mari Elozegi eta Aitzol Barandiaran ataundarra izan ziren eta gai-jartzaille lanetan berriz, Unai Elizasuk jardun zuen.

Bazkari eta bazkalondo melodikoaren segidan, bestelako joku



ARTXIBOKOA

Olentzeroren etorrerarekin eman zaio hasiera Gabonei Urtero bezala Olentzero izan da Gabon jaiei hasiera eman diena. **Abenduaren 24ean Olentzero su artifical batzuk zeruratu ondoren arratsaldeko zazpiak aldera etorri bazen ere, etxeko txikiak gurasoak bizkartzain hartuta eguerdi partean hasi ziren Olentzerori behar bezalako ongi etorria egiten. Goizeko ekitaldi honen ondotik eta herri guztia kantuz eta ilusioz zipritzindu ondoren, arratsaldeko hitzorduan Olentzero ikusi eta agurtzeko aukera eduki zuten herritarrek eta haurrek berriz, beren opariak eta nahiak eskatzeko aukera izan zuten. Olentzero eta bere laguntzaileez gain, herriko Bertso Eskolako hiru bertsolarik eta Asketa abesbatzak arratsalde hotzari berotasuna eskaintzen saiatu ziren. Horretarako Unai Elizasu, Inaxio Perurena eta Miguel Mari Elozegik bertso bana abestu zuten eta Asketa abesbatzako kideek berriz, hainbat eta hainbat Gabon kanta ezagun.**

batzuk eta manifa animatuaren txanda iritsi zen. Hauek bukatuta eta gazteak jada Gaztetxetik nahikoa urrun zeu-

dela jakinda, trikitixak eskuartean hartu eta trikipoteoaren tarteari eman zioten benetako garrantzia. Eguna bo-

robiltzeko, gauerdian: Txapel, Zartada eta Los Ratones Kolorados taldeek kontzertua eskaini zuten gaztetxean.

FLASH

Pelikula herrian grabatuko da

"La buena Nueva" Helena Taberna zuzendari nafarrak 2007. urteko udaberrian grabatuko duen luzemetraia, Leitzan egingo da. Pertsonaia garrantzitsuenen paperak jada banatuta badaude ere, abenduaren 11 eta 12an, Helena Taberna eta bere ekoizpen taldekoek kasting batzuk burutu zituzten udaletxeko areto nagusian eta Amazabal Institutuan. Helburua luzemetraia osatzeko figuranteak aurkitzea zen eta horretan saiatu ziren gerturatutako herritar guztiak.

Ateak egutegian

Pablo Feo leitzarrak, 2007. urteko egutegi berezi bat argitaratu berri du. Leitzako bi liburudendetan eskuragarri dagoen egutegi honetan, Pablok Leitzako hainbat etxetan ikus daitezkeen ate berezi batzuk jarri ditu ikusgai. Lan hau osatzen duten ate guztiak desberdinak dira. Denak nola denak berezi egiten duten desberdintasun propio bat daukate eta orokorrean, guztiak emaitza bezala; lan berezi, original eta koloretsu bat islatzen dutela aipatu daiteke.

BEINTZAKO OSTATUA
 ☎ 948 45 00 14
 www.beintzakomunika.com
 51701 BEINTZA LABARRIN
ORBELA

Ark_b arkitektura bulegoa
 Eraikuntza
 Hirigintza
 Udai-ahokularitza
 Celia Lana Ranz
 Huarte Gozal 7 - 31860 Leitza
 645008478 tel

ERROTALDE BIDEO-KUBA
 Berritzaileak: 11 - 31870 LEITZA
 Telefonoa: 948 55 73 48 - 918 37 98 75

ESKU LIBREKO TELEFONOEN INSTALAZIOA

Asteleheneretan 18:00-21:00
 Asteartetik ostiralera 10:00-13:00 / 17:15-20:45
 Larunbatetan 10:00-14:00 / 18:00-22:00

luis cestau baraibar
 arkitekto teknikoa
 leitza 607204485
 luesba @ msn.com

URDAZUBI



Olentzeroren bisita izan genuen Eguberri bezperan

Asto gainean iritsi zen, trikitixa doinuek alaiturik

Fanny eta Aitor

Abenduaren 24ean Olentzeroren bisita izan genuen herrian, asto gainean iritsi zen trikitixa doinuek alaiturik. Herriko plazan, jende gaz-

te eta ez hain gazteak egin zion ongi etorria. Hala ere, haurrak izan ziren gehien alaitu zirenak denei opari bana eramana baitzien Olentzerok. Plazan ordubete

inguru egon ondotik etxera abiatu behar izan zuten, gauetz Euskal Herriko etxe guzien itzulida egiteko azken prestaketak egin beharrak baitzuten.

KULTURA

Malerrekako ipuin eta bertso-paper lehiaketako sariak banatu ziren

ttipi-ttapa

Malerrekako Haur eta Gaztetxoentzako VIII. Bertso-paper eta Ipuin lehiaketaren sari banaketa egin zen Doneztebeko eskolan abenduaren 20an.

90 ikaslek egindako 55 ipuin eta 60 bertso aurkeztu ziren lehiaketara. Bi mailatan banatu zituzten, alde batetik Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako haurren lanak eta bertze aldetik 5. eta 6. mailakoak. Ipuinen saillean, gazteen artean, lehen saria Sunbillako Unai Bereauntzat izan zen "Urrezko arrauntzadun oiloa" izeneko lanari esker. Bigarren saria ere sunbillar batentzat izan zen. Eneko Herrerak eskuratu zuen "Moritz baserrian" idazlanarekin. Helduagoenen mailan Doneztebeko

Tamara Descalzo nagusitu zen "Eskailera" izenburuko lanarekin. Eratsungo Irantzu Mitxelena bigarren saria lortu zuen "Etxe misterioitsua" ipuinari esker. Bertso-paper lehiaketan, Iturengo haurrak izan ziren jaun eta jabe. Banatu ziren lau sarien artean lauak eskuratu zituzten. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. urtekoen mailan, Aritz Fagoagak irabazi zuen, Kultur Egunei buruz egindako bertsoekin. Bigarren saria Javier Seinek eskuratu zuen Eguberri buruz idatzitako bertsoei esker. 5. eta 6. urtekoen mailan lehen saria Izaro Ariztegiri eman zieten Inauteriei buruz egindako bertsoentzat, bigarrena berriz Garbiñe Olazari beste buruz jarritako bertsoentzat.

HERRIKO ETXEREN EDINETEIK CAFÉ DE LA MAIRIE
T: 0559542519
Maixan eta Véronique
SARA

J. RAMOS
zolak akutzilatatu eta barnizatzen ditut
Sakelekoa: 637 836 023 · LESAKA

Ginko 31700 Etxalar (Nafarroa)
Telefonoak: 617 350 025 - 667 694 867
e-posta: zumeidi@terra.es
M. Karmele Tolosa
Lorategiak diseinatu edo berdisenatzen dira

ZOANSA
SEAT VW HYUNDAI AUDI
MARKA GUZTIEN KONPONKETA
Banarta, 2 - Alkaiaga industrialdea
LESAKA (sarrera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

APARAN, S.A.
BRIKOLAIJA eta ZURAK
Melamina taulak
Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
Txapaz estalitako taulak
Entzimerak
Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
Pintura eta bernizak
Bainurako mobleak eta osagarriak
KIT mobleak, esku-erremintak, etab.
Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

BAZTAN

Urrutia Fundazioko bi ikastetxeen etorkizunaz galdetu dute Oronozen

Herriarentzat zer onura izanen diren ez dakite oronoztarrek

Maite OTEIZA

San Martin eta El Carmen ikastetxeei buruz egin ziren promesak egiazkoak ote ziren eta bete behar diren edo gezurra ziren galdetu die publikoki Oronoz-Mugairiko bizilagunek Balleko Udalarari eta Urrutia Fundazioari, abenduaren 9an egin zen batzarrean.

Jakina denez, Urrutia Fundazioaren babesean, Martin Urrutia Ezkurak egin zituen bi ikastetxe hauek, baina etxebizitzak egiteko Balleko Udalak birkalifikatu zituen, El Carmengoa aitzineko legealdian eta San Martin oraingoan. Bizilagunen erranetan, oraindik ez dakite zer mesede ekarriko dioten erabaki hauek Oronoz-Mugairiko herriari eta hainbat galdera eta kezka dituzte. «Orain arte Udalak behin eta berriz Oronoz-Mugaireko herriak eskatzen zituen aretoak, behar bezala hornituak izango zituela erran du. Zergatik



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Baztango megalito katalogoa aurkeztu dute 600 megalito baino gehiago biltzen dira Josu Cabodevilla eta Itziar Zabazak idatzi duten «Catálogo megalítico del Valle de Baztan-Baztango edesti aurreko oroitarriak» 507 orrialdeko liburuan. Abenduaren 27an egin zuten aurkezpena eta ekitaldian, idazleekin batera, Juan Ramon Corpas, Nafarroako Gobernuako Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria izan zen.

oraingo aldaketa hau? Zergatik 4 areto bakarrik? Zergatik eraikuntzaren erdia bakarrik? Zergatik ez dute kontutan izan behar herritarren nahiak? Zergatik ezin du erabaki herriak zertarako erabiliko dituen areto horiek? Zergatik inposatzen zaio

herriari areto horien xedea?».

Ikastetxeen salmentaren dirua herriarendako izanen zela hamaika aldiz errepikatu ondoren, herritarrek ondorengo galderak ere planteatu dituzte: «Non dago diru hori? Non dago diru horren lehengo-

ratzea? Zer gertatu da? Urrutia Fundazioak Oronozen Gizarte-ekintza bat egiteko nahia adierazten zuen. Non dago gizarte-ekintza hori?».

Abenduaren 20an egin zen bilerara gonbidatu arren, Udala eta Fundazioa ez zirela agertu diote bizilagunek.

FLASH

Erdizen harrobirik ez

Erdizen harrobi proiektuari buruz mintzatzeko batzarra egin zen ilbeltzaren 2an Arizkunenean. Antolatzaileen ustez, «orain da biltzen hasi eta erokeri honi aitzin egiteko tenorea».

Foruzaingoaren bulego berria Elizondon

Berriki artio Alkortaren bulegoa zenaren lokaletan, ilbeltzaren lehenbiziko egunetan Foruzaingoaren bulego berriari pausua emanen dio. Eguberrietarako martxan egotea nahi bazen ere, 2007.eko lehenbiziko egunetan inauguratzea espero da.

Aspacek garbituko ditu udal eraikinak

Ezohiko garbiketa orokorra eta Balleko Etxearen, Kultur Etxearen eta Elizondoko komuna publikoaren garbiketa zerbitzua. Ezohiko garbiketarengatik 1.295 euro (gehi BEZa) ordainduko da eta arestian aipatutako eraikinen urte osoko mantenimendu lanarengatik 29.915 euro (gehi BEZa).

Markesinarik ez Erratzun

Erratzun autobusaren esperoan egoteko markesina egiteko dirulaguntza eskatu zuen Balleko Udalak. Nafarroako Gobernuak 10.300 euroko subentzioa eman zion irailan. Orai, ordea, behar berriak sor-tu dira markesina egin nahi zen lekuan eta obrak eginen dira. Hori ikusita, eta momentuz markesina jartzeko lekua egokia ez denez, Balleko Udalak dirulaguntzari uko egitea erabaki du.

Carlos Garaikoetxea Etxenike abokatua

948 581 458
948 580 433
Frantziako etarte, 12
Arretziako 30
ELBETE

ANTXITONEA Trinketea

Jatetxea - Ostataua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iñarte karrika
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

Pitti

eskabaziloak

Tel: 616 513 491

Mendiako etate, 34 ZUBIETA

BAZTAN

Sei herri alkaterik gabe gelditu dira

Erratzu, Elizondo, Ziga eta Anizko alkateek bertze bi urtez segituko dute

Maite OTEIZA

Abenduaren 24ean egin zuten batzarra Baztango alkate juratuen hautatzeko. Aurreikusia zen bezala arrakasta handirik ez zuten izan eta hamabortz herrien artean sei alkaterik gabe gelditu ziren, Amaiur, Elbete, Irurita, Arraioz, Almandoz eta Oronoz. Hauek bertze batzar bat egin beharko dute. Erratzu, Elizondo, Ziga eta Anizen orain arte karguan zirenak segituko dute, hala nola, Santiago Ibargarai, Rafael Olaizola, Pablo Cenoz eta Martin Gamio. Bert-

ze herrietan aldaketak izan dira, Azpilkuetan Jon Alkassenak Ramon Urrutia ordezkatu du, Arizkun Patxi Larraldekin Martin Elizalde, Leharozen Javier Elizaldekin Fernando Astiz, Gartzainen Jose Mari Alberrok Jesus Elizegi eta Berroetan Arantxa Zozaiak Rafael Arretxea.

Amaiur, Elbete, Irurita, Arraioz, Oronoz eta Almandozen bigarren txandaren esperoan gelditu dira, hautagaiaren bat agertzen den ala ez. Iruritan, hurrengo deialdia abenduaren 31n,



UTZITAKO ARGAZKIA

Baztan Ikastolako Eguberrietako Krossa

Urtero bezala, Baztan ikastolak udalaren laguntzarekin krossa antolatu zuten abenduaren 17an. Irabazleak hauek izan ziren. Haur Hezkuntzan, Olaia Onsalo, Maddalen Anso, Aroa Urreaga, Aitor Martin, Iñaki Lerga eta Gillen Quartier; Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailan, Amaia Rekarte, Ainhoa Lana, Alaitz Nuñez, Javier Etxegoien, Ander Zelaieta eta Loren Que-rejeta; 3. eta 4. mailetan, Saioa Arretxea, Itxaso Urrutia, Aintzane Ariztegi, Mattin Asiain, Iñaki Irazoki eta Iñaki Anso; 5. eta 6. mailetan, Jone Camino, Maria Etxegoien, Itxaso Iriarte, Unai Santxotena eta Antton Astiz. Akabailan partehartzaile guzkiek saria eta gosaria izan zuten.

eguerdiko 12etan egi-tekoea zuten eta gainerako herrietan ilbeltzaren 1ean, ordu berean. Oraindik ere alkaterik gabe segitzen duten herriek Errege Egunean eginen dituzte batzarreak.

Kultur ekitaldiak

Baztango euskalgintzak eta herriko hainbat kultur eta kirol taldeek antolatutako ekitaldiek aitzinera segitzen dute. Ilbeltzaren 12an, «Indonesia 18.000 irla, 300 etnia... eta gehia-

go» diapositiba emaldia eskainiko du Eider Zapirainek Arizkunenean iluntzeko 8etan. Arrats berean, bertsoafaria izanen da Gaztetxean Jon Barberena, Jon Elizetxe eta Julen Zelaieta bertsoariariek.

ARMUA
Jatetxea
Tel: 948 599 131
Zuzenbideko errep. 3. km
URDAZUBI

MENDI
ostatua
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

MENDIALDE
Jatetxea
T: 948 45 3050
N: 121-8366 km
AMAIUR

Okindegia Jatetxea

Uxoa

OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
Especialitatea parrillan erretako jakietan
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen errea, goxo goxoa!

Ordoki Industrialdea
Tfnoa: 948 453 403
31713 ARIZKUN

POTTOKI

ZIKLO GIBELDIA BERRI ETAGUTITZEA

Partidulari Plaza, 7 - Iruña
31000 ELIZONDO (Nafarroa)
Tfno: 948 790 608
pottoki@irruña.es

Partidulari Irteerak:
9:30 - 13:30
16:00 - 20:00

IRUÑAN
SERBIA
LEHENAGORRI ALKAL
ERREBOI ETA LOZOR ERREBOI
ERREBOIEN 1. NUBIA
HAR-ABELE ALKAL
OFFICIAL
JANTZE ZERBITZUA

SENPERE

Hamarnaka herritar aterpetuko dituzten etxe berriak altxatuko dituzte hilerriaren ondoan

Xahar etxea sortzeko proiektua aintzintzen ari da

Franck DOLOSOR

Etxe berriak onddoak bezala agertzen ari dira nonahi azken urteetan eta etorkizunean ere berdintsu segituko du. Hilerriaren parean 40 bat etxebizitza eraikiko dituzte. 12.655 metro karratuko eremuaren jabearekin herriko etxeak egin dituen negoziaketak uste baino luzeagoak izan dira bainan azkenean akordio baterat heldu dira bi parteak. Herriak, etxebizitzaren Office 64 erakundeak eta Lapurdi hegoaldeko herri elkargiak bi eraikin altxatuko dituzte lur hortan. Batean prezio apalean alokatuko diren 20 apartamentu eginen dituzte eta bertzean 20 etxebizitza eraikiko dira.

Gehientsuenak prezio apalean salduko dira.

Gazteentzat izanen diren proiektu horiez gain, ondoan xahar etxe bat ireki nahi luke herriko etxeak. Diru laguntzak eta baimen guztiak erdiesten badira 65 lagun aterpetuko dituen etxe bat egingen litake.

Ingurumenaren aldeko laguntza

Departamenduko kontseilu nagusiak 400 euroko diru laguntzak emanen dizkie ura eguzkiarekin berotzeko tresnak beren etxeetan ezarriko dituzten herritarrei. Laguntza hori ongi etorria izanen da azken urteetan Akitaniako lurralde kontseiluak ematen zituen laguntzak desagertu direlaketz.



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

40 urte bete dituztenak eta Urrezko Ezteiak

2006an, 40 urte bete dituzten herritarrek biltzarra egin dute berriki aintzirako Txikitun ostatuan. Bigarren argazkian François eta Huguettek Herriko Etxearen oroitarria jaso zuten, beraien Urrezko Ezteiak ospatzeko.

Amotz eta Hergaraiko ur zikinak

Amotzen eta Hergarain ur zikinak biltzeko lanak bururatu dira. Lapurdi hegoaldeko herri elkargiak egin dituen lanek 45.525 eta

425.000 euroko gastuak sortu dituzte Amotzen eta Hergarain.

Herri jantegia

230 haur har ditzaken herri jantegi berria sortu nahi du herriko etxeak Gantxiki kirold-

giaren ondoan. Iduriz, 48.000 euro gastako da gazteek baliatuko duten azpi egitura berri hori. Herriak diru laguntzak galdegin ditu jadanik Frantziako estatuari eta Paueko kontseilu nagusiari.

Landibar ZENTRO KOMERTZIALA

300m perfume markarik ezagunenekin, usain onak, kosmetikoak...
Euskal Herriko preziorik hoberenak

EGUNERO IREKIA

Tel: (0034) 948 599 400 · URDAZUBI

bentamiguel
dena, jantzea eta ostia

Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran

Tafeloa
Ukorrak
Jantarrenda
Unlategia

Ibardingo Lepoa • & 948 631209



euskara
batzordea

mintzo

Malerrekako Euskara Zerbitzuaren argitalpena

2007ko
urtarrilak 04

Haur eta gaztetxoendako Malerrekako VIII. Bertso-paper eta Ipuin Lehiaketa

Aurten ere Malerrekako Mankomunitateko Euskara Batzordeak antolatzen duen ipuin eta bertso-paper lehiaketaren lan sarituak argitara ematen ditugu Ttipi-ttaparen gehigarri honen bidez.

Aski finkatua dagoen egitasmo honen zortzigarren urtebetetzea egin du dagoeneko. Aurtengo partehartzeari dagokionez 45 ipuin eta 58 bertso-paper jaso ditugu, partehartzaileak orotara 90 izan direlarik. Lehendabiziko aldiz bertso-paperak ipuinen gainetik jarri dira, Malerrekan bertsolaritzaren gorakadaren

adierazle, zalantzarik gabe.

Lehiaketaren helburua 8 eta 12 urte bitarteko gaztetxoaren artean euskaraz idazteko ohitura sortu edo areagotzea eta bertsolaritzarako zaletasuna bulkatzea da. Sariak emateko bestatikia ospatu genuen abenduaren 20an asteazkenarekin, Doneztebeko eskolan partehartzaile guziendako (baita hurbildu ziren gurasoendako) berendua eta txokolatea eskainiz. Partehartzaile guziek opari bana jaso zuten ere.



IPUIN LEHIAKETA

L.H.ko 3.eta 4. mailak

1. Saria: Unai Bereau, SUNBILLA

URREZKO ARRAUTZADUN OILOA



Bazen behin Sunbillan bizi zen baserri-tar bat. Gizon asko ezagutzen zituen. Horietako bat baserritarra

zen, Igantzin bizi zen, oso lagun minak ziren biak. Oso mendizaleak ziren eta aizkolariak gustatzen zitzaizkien. Igantziarra sunbildarra baino burugabekoa zen. Bata bestea baino zaharragoa, batek berrogeita hemeretzi urte zituen eta besteak berrogeita hamabost. Igantziarra zen zaharragoa. Egun batean basora joan ziren biak aizkora hartuta zuhaitzak moztera, egurrak sukaldera botatzeko, negua zelako. Ordu bat geroago bukatu zuten den-dena moztan.

- Azkenean bukatu dugu, esan zuten biak batera.

Etxera joan ziren eguberriko gauzak prestatzera. Neguan zehar opariak hartu eta opari horiekin jolasten ibili ziren. Udaberria iritsi zen eta berriro joan ziren zura bila.

Udaberrian gauza asko egin zituzten. Batez ere mendi irteerak eta txapelketa batean sunbildarra gelditu zen lehengoa eta igantziarra bigarrena

- Mendizale onazara eh!, esan zuten igantziarrak.

- Baita zu ere, erantzun zuten sunbildarrak.

Gero uda iritsi zen eta bero handia egiten zuen mendietan.

Bi baserritarrek herrira joatea erabaki zuten.

- Bero handia egiten du eh!, esan zuten sunbildarrak.

- Bai gehiegi, erantzun zuten igantziarrak,

Azkenean piszinara joan ziren biak gorputza pixka bat freskatzera. Uda gogorra izan zen bientzat.

Udazkena iritsi zen eta asko poztu ziren.

- Azkenean iritsi da udazkena, esan zuten igantziarrak pozik.

- Bai azkenean, esan zuten sunbildarrak.

Udazkenean berriro zuhaitzak moztera joan partez ondoak biltzera joan ziren, hiru aste jarraian. Egun batean, oilo bat aurkitu zuten mendian eta etxean txandaka zaintzea erabaki zuten.

Lehendabizi sunbildarrari tokatu zitzaion, baina sunbildarrak sotoan uztea erabaki zuten ongi ezagutzeko.

Zorte txarrez, sunbildarra gaxotu eta hil egin zen, horregatik igantziarrak beretzako eramanean zuten.

Berak era sotoan utzi zuten, hasieran, aste baterako, oiloa zer moduz zegoen ikustera joan zen:

- Nik zertarako behar dut oilo bat?

Eta hiltzea erabaki zuten, as-

tebete bakarrik egon arren oiloarekin. Baina, hurbildu eta atea ireki ondoren han behean zazpi arrautza zeuden, ez edozein arrautza, oso arrautza bereziak ziren, urrezko arrautzak zirelako eta Igantziarra poztu egin zen.

- Ez dut inoiz ere oilo hau hilkiko. Pentsatu zuten igantziarrak pozik.

Egunero arrautza bat erruten zion, horrela aberasten hasi zen pixkanaka-pixkanaka eta azkenean bilduma osatzen ari zela ematen zuten eta berak oso pozik hartzen zituen arrautzak.

Berak, ordea, azkar aberastu nahi zuten eta pentsatzen hasi zen. Baserritarrak pentsatu zuten oiloaren barrenean urrezko arrautzak egiteko makina bat zuela eta hiltzea erabaki zuten. Azkenean hil egin zuten, gero sukaldera eramanean zuten eta han tripak ateratzea erabaki zuten makina hartzeko eta berak nahi zuenean ateratzea. Ireki egin zion tripa. Hori ez beharra hartu zuten makina bere barrenean ez egotean! Bi aldiz ez pentsatzeagatik gertatu zitzaion hori eta pentsatu zuten:

- Zer egingo dut oilorik gabe? ez dut halakorik gehiago eginen edozein gauza inportanterekin. Baserritarra oso triste zegoen eta aste bete egon zen ohean ezer egin gabe.

Zerbait pentsatzen ahalegin-

duzen. Baina ezer ez. Denbora aunitz eman zuten zer egin jakin gabe eta azkenean beste baten bila joatea erabaki zuten:

- Beste oilo bat bilatuko dut, ea urrezko arrautzak egiten dituen.

Mendira itzuli zen berriro eta aunitz ibili ondoren oiloak harrrapatu zituen baina, ez urrezkoa, orduan etzekien zer egin. Bere buruak urrezko arrautzak egiten zituen oiloan bakarrik pentsatzen zuten. Etzekien aberasteko beste modurik eta kezkatzen hasi zen igantziarra.

Bere buruari hau esan zion:

- Ez dakit beste aberasteko modurik nahiz eta sakon pentsatu.

Eta hala zen sunbildarra oso ikasle ona, gauzak egin baina lehenago bi aldiz pentsatzen zuten, ez zen igantziarra bezain burugabea, askoz ere ikasle hobearen sunbildarra. Orduan jabetu zen igantziarra txikitant gehiago ikasi behar zuela eta negarrez hasi damuz.

Ordutik aurrera baserritarra ez zen gehiago aberastu eta ez zuten gehiago holako gauzarik eginen eta horrela baserritarra bere egiazko bizimodura itzuli zen baina damututa negarrez zegoen.

Urte batzuk geroago dena ahaztuta zeukan. Horrela dena ahaztuta pozik bizi izan zen. Eta hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta ate-

IPUIN LEHIAKETA

L.H.ko 5.eta 6. mailak

1. Saria: Tamara Descalzo, DONEZTEBE

ESKAILERA

Jenderik gabe-ko herriak asko gustatzen zitzaizkion. Horregatik joaten zen sarriritan Nafarroako

herri isil eta hotz hartara.

Ez zekien inork noiz geratu zen jenderik gabe Estelako herria. Batzuek zioten gaixotasun batek herritarrak garbitu zituela, beste batzuek gerra garaian bertako bizilagun guztiak eraman zituztela... hainbat istorio entzun zuen. Egia esan, Estelako kaleetan ibiltzen zen bizilagun bakarra haizea zen. Haize hotza. Behinola, autoa hartu zuen eta Estelara abiatu zuen. Azken bost kilometroak oinez egin behar izan zuen, bidea zuloz eta sasiz beterik zegoelako. Azkenean, han urrunean, Estelako elizako kanpandorrea ikusi zuen. Hartziko dorrea zen eta herriaren erdian zegoen, zutik eta harro barkadade horren zaindaria bezala.

Heldu zen herrira. Han ez zegoen inor, isiltasuna zen nagusi. Lehenengo etxearen parera heldu zenean, txori beltz bat pasatu zen garrasika bere buru gainetik eta dorrearen leiho batetik sartu zuen. Gero bere zulutik begiratu zion, harriturik bezala.

Kale hartan sartu zen; etxeak, ederrak batzuk, erdi eroriak, beste batzuk, herri hartan gertatutakoaren lekuko bakarrak ziren.

Herrian zehar itzuli bat egin

ondoren, dorrerantz jo zuen. Argazki batzuk atera zituen. Gero, atetik sartu zen. Barrua oso ilun zegoen. Atearen ondoan, eskailera biribil baten lehen mailak ikusi zituen eta igotzen hasi zen. Eskailera guztiz sendoa zen. Han barruan zegoen hezetasunarekin, mailak bustita zeuden, eta batzuk guztiz igaturik. Une batez, atzera egiteko gogoia sartu zitzaion, baina aurrera segitu zuen.

-Goitik ikuspegi ederra egongo da eta argazki pare bat egingo ditut – pentsatu zuen bere artean -.

Bost minutuz, eskaileretan gora lasai ibili zen. Gutxienez laurogei maila gainditu zuen. Beste bost minutu eman zituen goranzko bidean. Hala ere, eskailera ez zen bukatzen.

Aurrera segitu zuen beste bost minutuz... eta beste hamar minutuz... kanpotik dorre hura ez zirudien hain altua zenik.

Laurehun maila igo zituela kalkulatu zuen eta, hala ere, eskailera gorantz segitzen zuen.

Orduan, beldurtzen hasi zen. Arnasa hartu eta presaka igo zituen beste ehun maila. Baina dorrearen bukaera ez zen inon ageri.

Larriaren larriaz beherantz hasi zen arinaketan. Seiehun, zazpirehun, zortzirehun..., baina irteerako atearen arrastorik ez zegoen.

- Baina non dago? –galdetuz zion bere buruari.

Kanpoan iluntzen hasi zen



eta beldurra barnerago sartu zitzaion. Orduan gorantz jo zuen, irteera atzean utzita zegoelakoan. Baina alferrik, irteerarik gabeko labirinto baten barruan bide zegoen. Azkenean, neka-neka egin da, maila batean eseri eta lo geratu zen. Ez daki zehatzasunez esaten zenbat denbora egon zen, baina ez zuen uste denbora luzea izan zenik. Esmatzerakoan, astiro-astiro altxatu zen. Hala ere, oreka galdu eta eskaileretan behera eroritzen itzulipurdika. Erori eta erori. Behera eta behera.

Azkenean, bere gorputzak egurrezko ate baten kontra jo zuen. Irteera zen. Kanpora atera zen eta, atzerantz begiratu zuenean, Estelako hartziko dorrea ikusi zuen, beti bezala.

Oso ikaraturik zegoen eta autorainoko bidea korrika eta itsumustuan egin zuen. Noizean behin atzerantz begiratzen zuen korrika egiterari utzi gabe, baina dorrea eta herria betiko moduan zeuden, han ez zegoen inor.

Ez da gehiago Estelara joan, ezta dorre batean sartuko ere,

Bertso-paper lehiaketa

KULTUR EGUNAK

L.H.ko 3. eta 4. mailak

1. Saria: Aritz Fagoaga, ITUREN

Neurria: Zortziko txikia

1
Abendun batan zela
Ittunin bai besta
kultur egunak ziren
ta nik nuen kezka
talo jatera juan
mutil eta neska
Gorritin bakillakin
hautsi nun kopeta.

2
Ginkanan ere aittu
giñen bai lagunak
ta gelditu gainera
giñen txapeldunak
pruebak batzuk ziren
guretzat astunak
jituk bezala ginen
gu gara tuntunak.



IÑAUTERIAK

L.H.ko 5. eta 6. mailak

1 Saria: Izaro Ariztegi, ITUREN

Neurria:Kopla

1
Ixtanteko heldu dira
inauterik hemen
lemizko joaldunak
karrozak ondoren.

2
Astelenin Ittunin
astirtin Zubitan
eta ongi pasatzen
dugula guk bitan.

3
Zertaz mozorratu nik
jada pentsatu dut
eta mozorrazeko
battuztela goguk.

4
Berriz joanen dira
iñautik aparte
ta joare soinua
hurrengo urte arte.





EZKONTZAK

Raul Acebron Gallego eta **Ana Isabel Agerrea Altzualde**, Madril eta Arizkungoa, abenduaren 2an.

Jose Miguel Latasa Errekart eta **Miren Izkieta Ziriza**, Elizondo eta Antsoaingoa, abenduaren 22an.



SORTZEAK

Markel Agesta Hernandorena, Sunbillakoa, abenduaren 19an.

Marko San Miguel Grande, Oitzkoa, abenduaren 20an.

Jone Etxeberria Zabaleta, Elizondokoa, abenduaren 9an.

Daniel Da Silva Mota, Elizondokoa, abenduaren 23an.



HERIOTZAK

Maria Etxeberria Grajirena, Iturengoa, abenduaren 13an, 91 urte.

Sor Maria de Jesus Torres Murillo, Donamarian, abenduaren 15ean, 72 urte.

Margarita Ariztegi Barber, Arantzakoa, abenduaren 16an, 75 urte.

Agustin Iraola Maritorea, Igantzikoa, abenduaren 15ean, 91 urte.

Geronimo Aleman Maskotena, Amaiurkoa Kalifornian, azaroaren 6an, 64 urte.

Clemente Otamendi Artola, Elizondon, abenduaren 16an, 80 urte.

Maria Lina Etxegia Goñi, Urrozkoa, abenduaren 16an, 63 urte.

Remigio Erasun Elizalde, Eratsungoa, abenduaren 14ean, 48 urte.

Bibiana Agirre Alkasena, Lekarozkoa, abenduaren 16an, 88 urte.

Prudencio Aleman Etxeberria, Amaiurkoa, abenduaren 17an, 72 urte.

Margarita Jimenez Jimenez, Elizondon, abenduaren 19an, 79 urte.

Jose Ariztegi Telletxea, Doneztebekoa, abenduaren 21ean, 87 urte.

Juan Bautista Tipy, Arizkungoa, abenduaren 21ean, 58 urte.

Antonio Labaien Lasarte, Leitzakoa, abenduaren 24ean, 86 urte.

Mercedes Azkona Etxaniz, Berakoa, abenduaren 26an, 72 urte.



Teodoro PERUGORRIA DAMBORIENA

2006ko azaroaren 20an hil zen Etxalarren, 71 urte zituela.

Gogorra da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko baina bizi garen artean ez zaitugu ahaztuko.

ZURE FAMILIA.

Egun gogor hauetan gure ondoan izan zareten eta gure saminarekin bat egin duzuen guzietan, mila esker.

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

KULTURKARI • Andutzeta 12. Etxalar • Tfnoa: 948 63 54 58

PILOTA

Errekaren eskuz binakako txapelketa urtarrilaren 17an abiatuko da

Martxoaren 10ean jokatuko dira kategoría guzietako finalak

eAitor AROTZENA

Doneztebeko erreka elkarteak bosgarren aldiz antolatuko du eskuz binakako pilota txapelketa. Aurrebenjamin mailatik hasi eta elite senior bitarte, kategoría guzietan hamaseina bikote arituko dira. Elitekoek asteazken arratsaldetan jokatu dituzte partidak eta gainerakoek larunbatetan, Doneztebe eta Sunbillako pilotalekuetan.

Honela, urtarrilaren 17an, asteazkenarekin abiatuko da elite mailako txapelketa eta azken urteetan bezala, bikote handiak izanen dira. Aipatzekoa da joan den urtean txapelkun izan ziren Oteiza eta Belloso, dagoeneko debutu egin dute profesionalen artean.

Hilaren 17ko final zortzirenetako jardunaldian honako partidak jokatu dira Donezteben 17:00etatik aitzinera: Iraola eta Urzainki, Etxeberria eta Antxoren kontra; Oskar Urrutia eta Iza, Cerezo eta Huarteren kontra; Olaetxea eta Galarraga, Etxebeste eta Etxegaraien kontra; Lazkoz eta Mariñelarena, Elurbe eta Garmendiaren kontra eta Irigoien eta Iparragirre, Azpiroz eta Zabaloren kontra. Sunbillan, berriz, 16:30etik aitzinera hiru partida jokatu dira: Unai Arraztoa eta Landiribar, Urtasun eta Lopezgiren kontra; Abad



Joan den urteko elite mailako txapelketa irabazi zuten Belloso eta Oteizak profesionalen artean debuta egin dute.

eta Okiñena, Renovales eta Senperenaren kontra eta Ontsaloko eta Irurita, Azagirre eta Anguloren kontra.

Irabazleek urtarrilaren 24an jokatu dituzte final laurdenak, urtarrilaren 31n final erdiak eta martxoaren

10ean, bertze kategoría guzietakoekin batera, finalak jokatu dira Donezteben goiz-arratsaldean.

2006a: Urte ona Errekarentzat

Patxi Ordoki, Erreka pilota elkarreko arduraduna gustora ageri da Errekak joan den urtean izandako emaitzekin. «Bertzeak bertze Berria txapelketan txapelkunorde izan zen Erreka, eta elkarreko pilotariek hainbat txapel eskuratu dituzte. Honela, GRAVN txapelketan eskuz banaka txapelkun izan zen Markel Etxebeste beratarra senior mailan, eta Joseba Babaze urroztarra eskuz binaka txapelkun izan zen. Nafarroako buruz buruko txapelketako finalerdietan izan zen Iraola, baina 17-18 galdu zuen Linzoainekin». Erreka taldea Nafarroako txapelketako lehen mailara igaita lortu zuen 2005ean,

eta 2006an bere helburua bete eta kategoría mantentzea lortu du.

Ezker paretean ez ezik, trinketean ere ongi moldatu dira Errekako pilotariak. Kadete mailan, Nafarroako txapelkun izan dira binaka Iker Bereau eta Ugutz Zelaieta eta azken honek bakarka ere txapela jantzi zuen.

Aurtengoari begira, Patxi Ordoki ez dago konforme Berria txapelketako antolatzaileekin. Izan ere, Erreka azpitxapelkun izanik ez dute zortzi serie-buruen artean sartu eta txapelketan sartzeko, sailkapen fase bat jokatu beharko luke. «Baldintza horietan, Errekak ez duela parte hartuko» jakinarazi digu Ordokik.



PERTSONAIA

Abel BARRIOLA

Lau terdiko azpitxapelkun final bikaina jokatu ondotik

Abel Barriola leitzarria EPELe antolatutako lau terdiko txapelketako azpitxapelkun izan zen. Abenduaren 17an Gasteizko Ogeta pilotalekuan jokatuako finalean 21-22 galdu zuen Irujorekin. Leitzarriak partidua bikaina egin zuen, bere errekupe-razioa erabatekoa dela erakutsiz. Barriola 7-14 aitzinetik izan zen, baina sakez falta egin zuen eta hortxe hasi zen Irujoren suspertzea. 20 eta 16 aitzinerik jarri zen Iberokoa eta partida erabakia zegoela zirudien. Baina berriz ere Barriolak hogeina berdintzea eta 20-21 aitzinetik lortu zuen. 22garrena ere eskura izan zuen leitzarriak, baina bolea errexa txapera joan zitzaion. Hogeitabanakoarekin edozer gerta zitekeen baina tantoa Irujoren alde erori zen. Gazi-gozo sentsazioa utzi zion finalak Barriolari. Gazi, finala galdu zuen moduagatik eta gozoa, berriz ere goi mailan aritzeko moduan dela erakutsi zuelako.

HERRI KIROLA

Olasagastiren kontrako apostua maisuki irabazi zuen Mindegiak

Oraingo ez du beste aposturik jokatu, min hartu baitu Ezkurraoak

A.A.

Miel Mindegiak, 57 urterekin, garaipenak pilotzen segitzen du. Abenduaren 17an Tolosako zezen-plazan Joxemari Olasagastirekin jokatuak desafioa maisuki irabazi zuen. Ikusmina ikaragarria izan zen eta inork uste baino jende gehiago elkartzu zen apostua ikustera, ia 3.000 zale bildu baitziren harmailetan. Aizkolari bakoitzak 24 kanardiko moztu behar izan zituen, eta enborrak erdi bana plazaratu zituzten. Apezetxea eta Telletxea izan ziren Mindegiaren laguntzaileak, eta Etxebeste eta Peñagarikano Olasagastirenak. Alde bakoitzak 18.000 euro jokatu zituen dirutan. Olasagastik bizi-bizi ekin zion apustuari, bere helburua Mindegia gibelean uztea baitzen, eta aitzinetik izan zen lehen hamar enborretan. Hala ere, ez zuen alderik ateratzea lortzen: Ezkurraoak 6-7 segundora izan zuen, beti gainean.

Aizkolarien erritmoa, gainera, hagitz ona izan zen, lehen zatian bi minututik behera ibili baitziren. Hamargarren enborrean, bi segundo ateratzen zizkion Igeldoako Ezkurraoari, baina hortxe akautu zen apustua, bigarren zatian Miel Mindegia erabat nagusitu baitzen.

Hurrengo enborrean nafarra 7 segundu ait-



ARTXIBOKOA

Hogei 60 ontzakotara munduko edozein aizkolariri desafioa bota zion desafioa, baina min hartu eta bertan behera gelditu da momentuz.

zineratu zen eta pixkanaka aldea gehitzen joan zen. Lan erdietan, minutu erdiko aldea ateratzen zion Mindegiak Olasagastiri, eta apustuak erabakita ote zegoen itxura hartu zuen, eta halaxe izan zen. Ezkurraoak aizkolarari beterranoak bere lanean segitu zuen, eta aldea gehitzen joan zen. Buakaeran, garaipen handia Mindegiarentzat, lan ederra eginda. Olasagastik berak ere ez zuen lan txarra egin, baina ezin izan zen gailendu.

Buakaeran, kiroltasuna izan zen nagusi, eta Olasagastik bere lanak akautu zituenean, Mindegiarengana gerturatu, bostekoa eman eta denen aurrean zorion-

du zuen, jendearen txalo artean.

APOSTU MUNDIALA

Miel Mindegiak gus-tora hartu zuen garaipena, eta animoak eman zizkion nonbait, bazkaldu ondotik, apusturako deia egin baitzuen berriro.

Hogei 60 ontzakotara munduko edozein aizkolariri bota zion erronka, eta joan den abenduaren 22an Tolosako Kantabriko tabernan egin zuen hitzordua. Donato Larretxea eta Mindegia agertu ziren hitzordura, baina honek besoa lotua zeukan, min hartu zuelako baserrian lanean zebilela. Beraz, momentuz ez da aposturik izanen.

DENBORAK ENBORREZ ENBOR	
MINDEGIA	Olasagasti
1'22"	1'22"
3'05"	3'02"
4'47"	4'41"
6'28"	6'21"
8'16"	8'10"
10'07"	10'00"
12'00"	11'54"
14'05"	13'57"
16'16"	16'08"
18'19"	18'17"
20'33"	20'40"
22'40"	23'10"
24'55"	25'49"
26'54"	28'14"
28'49"	30'29"
30'50"	32'53"
32'52"	35'23"
35'12"	38'00"
37'36"	40'26"
40'16"	42'40"
42'46"	45'15"
45'03"	47'53"
47'47"	50'39"
50'19"	53'46"

FLASH

Hita-Lizaso berriz ere txapelkun Lesakako paleta-goma txapelketan

Joan den urtean bezala, aurten ere Hita eta Lizaso bikoteak irabazi du Lesakako Batzoki elkarteak antolatutako paleta-goma txapelketa, final estuan Antxordoki eta Telletxea igantziarrei 30-28 irabazita. Bigarren kategorian, Santesteban eta Rotetak 30-20 irabazi zieten Laralde eta Bertizi. Hirugarren posturako lehiak ere jokatu ziren bi kategoriatan. Lehen mailan, gipuzkoarren arteko lehiari, Otegi eta Zaplainek 30-15 irabazi zieten Peluaga eta Hueguni. Bigarren mailan, Aizpuru eta Auzmendi gipuzkoarrek 30-12 irabazi zieten Lesakako Mitxelenari eta Sanjurjoren orde aritu zen Romanori. Partida haueztaz gain, Batzoki Elkartearen saria ere erabaki zen Lesakako bi bikoteren artean: Iñigo eta Josuk 30-19 irabazi zieten Mitxelena eta Castorri.

Faustino erremonte txapelketa

Binakako erremonte txapelketa azken txanpan sartua da. Finalerdiko ligaxkan sartuak daude Miguel Mari Urrutia saldiastarra Altuna I.rekin eta Doneztebeko bikotea, Koteto Ezkurra eta Julen San Miguel. Azken honek min hartu zuen ligaxkako azken partidari eta ikusi egin beharko da finalerdiari aritzeko errekuperatzen den. Txapelketako finala urtarrilaren 13an jokatu da Hernaniko Galarreta pilotalekuan.

AGENDA egunez egun

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

Abenduaren 14tik urtarrilaren 9 artio Rafael Ubaniren pintura erakusketa Arizkunengan.

ARIZKUN

Abenduaren 23tik urtarrilaren 29 artio Gorrienea Museo Etxean «Munduko jaiotzak» erakusketa.

BERTSOAK

BORTZIRIAK

Bortzrietako bertso eskolak taldekako 9. lehiaketa antolatu du. **Urtarrilaren 12an**, ortziralara, 20:30ean lehen saioa egingen dute Iñigo Olaetxea, Estitxu Fernandez eta Ander Zubitak, Berako taldea osatzen duten Julen eta Taberna anai-arreben aurka. 22:00etan afaria izanen dute Espidobaitan eta ondotik iazko txapeldunak, Silveira anaiak eta Oskar Goñi; Estitxu Arozena, Josu Sanjurjo eta Ior Taintaren aurka arituko dira. **Urtarrilaren 13an**, 13:30ean bazkaria izanen dute Kattun eta ondotik, Erika Lagoma, Xabier Terreros eta Imanol Lopez; Jon Barberena, Alazne Untxaki eta Maialen Belarraren kontra arituko dira. 16:30ean Xarutan, Etxabe, Manolo Arozena eta Egoitz Telletxea; Bittor Elizagoien, Jon Elizetxe eta Iker Gorosterrazuren kontra arituko dira. Ondoren finalerdiak jokatuko dira, 18:30ean Haizegoan eta 20:30ean Atxaspin. 22:00etan Linddurren bordan egingen den afariaren ondotik jokatuko da finala. Otorduetara apuntatzeko 618 963011 telefonora deitu behar da.

TELEBISTAKO TXOKOA



URTE BERRIARI EKIN DIO TELEBISTAK Herrietako Errege Kabalgatak ikusgai ttipi-ttapan

Urte berriari ekin dio ttipi-ttapa telebistak. Aldaketa handiegirik ez da izanen programazioan, baina Eguberrietako ospakizunak akautzeko Errege Kabalgatak izanen dira eskualdeko herri gehienetan eta batzuen berri emanen du ttipi-ttapa telebistak heldu den asteleheneko, urtarrilaren 8ko albistegian. Beran, ortziral arratsaldean ibiliko dira Erregeen pajeak herriko karriketari barna gutunak biltzen eta arrats partean egingen da Errege kabalgata Itzea auzotik Herriko Etxeko plazara. Lesakan, 17:00etan erregeen postariak eskutitzak bilduko ditu Plaza Zaharrean: 18:00etan Errege Ma-

goak, musika banda, trikitixak eta laguntzaileekin batera herrian barrena ibilaldia egingen dute eta 19:00etan jaiotza pilotalekuan eta erregeek haur guztei harrera egingen diete. Arantzan, arratseko meza ondotik eta elizan Meltxor, Gaspar eta Baltasarrek opariak banatuko dituzte. Igantzin, Sunbillan, Donezteben eta bertze herrietan ere egingen dira kabalgatak.

BORTZIRIETAKO TALDEKAKO 9. BERTSO LEHIAKETA

Urtarrilaren 12 eta 13an Bortzrietako bertso eskolaren taldekako 9. lehiaketa egingen da eta iru-

DISKAK



Nömadak TX

OREKA TX

TXALAPART, 2006

Igor Otxoak eta Harkaitz Martinez de San Vicentek osatzen duten Oreka TX-n bigarren diskoa, Nömadak TX, izen bereko proiektuaren bigarren emaitza da, lehena filma izan baitzen. Lau urte baino gehiago pasatuta Oreka TX-eko ki-deek proiektu honi ekin ziotenetik, eta emaitzek jarraituko dute zer esanena ematen. India, Mongolia, Laponia eta Sahara. Hauek izan dira Euskal Herriarekin batera grabaketak egin diren lekuak. Oreka TX-ek toki hauetako bakoitzean bertako musikariak laguntza jaso duela. Hain zuzen hau baita diskoaren muina. Proiektu honen guziaren atzean, eta beraz, diskoaren atzean ere, oinarritzko kontzeptua dago «txalaparta». Disko hau modu berean eginga dago, Oreka TX-ek bertze pertsona batzuekin egin du topo eta bategite horretatik jaioda Nömadak TX.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Abenduaren 15etik 22ra bitarteko prezioak)



ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 40,00 € (-1,00)
Zerri gizona
0,965 € kilo. (-0,020)
Zerramak:
0,480 € Kg/bizirik. (-0,020)



BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 3,95 (+0,03)
1.koa 3,70 (+0,03)
2.koa 3,50 (+0,03)
Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,07 (+0,03)
1.koa 3,82 (+0,03)
2.koa 3,59 (+0,03)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):
Aretze mestizoak:
urruxak 210,00 (=)
idixkoak 258,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 170,00 (=)
idixkoak 195,00 (=)
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,94/3,05
Zaldi-behorrak: 1,70/1,90
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 7,00/7,70
8-10 kilokoak: 5,50 /6,20

AGENDA egunez egun

JAKIN BEHARREKOAK

Marka zuriko produktuak erosiz %41 aurrezten da banaz bertze

Irache elkarteak Iruñerrian egindako ikerketaren arabera

Supermerkatu eta denda handietan erosketak egiten direnean, marka ezaguneko produktuak erosi beharrean marka zuriko produktuak erosteak dituen abantailak aprobetxatzea aholkatu die kontsumitzaileei Irache elkarteak. Marka zuriko produktuak supermerkatu eta hipermerkatuetan sartu diren produktuak dira, eta denda horren logotipoa edo marka daukate. Produktu hauen abantailarik handiena prezioa da, markako produktuei baino nabarmen merkeagoak baitira, baina kalitate bera mantenduz. Izan ere, bere produktuari marka jartzen dion fabrikante berak egiten baititu marka zuriko produktuak, enbasea eta izena aldatuz. Kalitatea bermatua dago, kate komertzialek



Marka zuriko produktu batzuk, marka ezagunekoak baino %100 merkeagoak edo oraindik merkeagoak dira.

bereziki zaintzen baitituzte produktu hauek, beraien izen ona jokoan delako. Batzuetan, marka zuriko produktuek fabrikantearen kontrola ez ezik, laborategi independenteena ere izaten dute.

Irache Kontsumitzaile elkarteak abenduaren 13 eta 14ean Iruñerrian egindako azterketaren arabera, banaz bertze %40 aurrezten da marka zuriko produktuak ero-

sita. Ondorio horretara ailegatzeko, merkataritza gune ezberdinetako 400 produktu aztertu dira, marka ezaguneko artikuluen eta marka zuriko artikuluen prezioak konparatuz. Hainbat kasutan, marka ezaguneko produktuak marka zurikoak baino %100 edo gehiago garestiagoak dira. Diferentzia handienak garbiketarako produktuetan somatzen dira.

Marka zuriko pro-

duktuen merkaturatzaileak zabalzen eta handitzen ari da. Marka zuria kasik produktu guzietan topatzen ditugu. Hasieran, «marka zuria» esnekietan eta gisako produktuetan bakarrik merkaturatzen ziren, baina gaur egun janari, garbiketa eta etxeko tresnara ere hedatu dira. Marka zuriko enbaseetan, markako produktuetan agertzen diren datu berdinak agertu behar dira.

LIBURUAK



Apaizac Obeto

Jon MAIA

ELKAR, 2006

XVI. eta XVII. mendeetan euskal arrantzaleek Kanadako Ipar Atlantikoko uretan eginiko balearen arrantzaren kronika gure itsas historiaren pasarterik kilikagarrienetako bat da. Hain zuzen ere, historia hori berreskuratu nahian, Apaizac Obeto espedizioa ekainaren 5ean Pasaiatik abiatu eta, sei astetan San Lorentzo ibaian nabigatu ondoren, Ternuako Red Bayeko badiara iritsi zen. Espedizioaren xedea Kanadako arkeologoak ikertzen ari

diren XVI. mendeko euskal balea eta bakailao arrantzaleen kokalekuetara joatea izan zen. Horrez gain, espedizioak euskal baleazale eta bakailao arrantzaleekin harremanak zizuten indigenen tribuak ere bisitatu zituzten, berezko kulturak eta ahozko tradizioaren berri izateko. Apaizac Obeto espedizioak, liburu honen bidez, Beothuk txalupara igo eta denboran eta geografian zehar bidaia egitera gonbidatu nahi du irakurlea.

MENDI ATERALDIAK

SUNBILLA

Urtarrilaren 7an
Mendaurrera ateraldia antolatu du Ulibeltzak mendi taldeak.
Urtarrilaren 14ean Adira ateraldia antolatu du Ulibeltzak mendi taldeak.

DIAPOSITIBAK

ELIZONDO

Urtarrilaren 12an
«Indonesia, 18.000 irla 300 etnia... eta gehiago» diapositiba emanaldia Eider Zapirainen eskutik Arizkunenean 20:00etan.

BERTSO AFARIAK

ELIZONDO

Urtarrilaren 12an bertso-afaria Gaztetxean, Jon Barberena, Jon Elizetxe eta Julen Zelaletarekin.

IKASTAROAK

BERA

Urtarrilaren 13an, 20an eta 27an (larunbatak) hip op ikastaroa, 17:00etatik 20:00etara Kultur Etxean.

KONTZERTUAK

ELIZONDO

Urtarrilaren 6an Lur diskotekan, Delorean eta Sixty Sexers taldeek kontzertua eskainiko dute 23:30etik aitzinera. Sarrera: 9 euro aurretik eta 11 euro takilan.

LEHIAKETAK

BAZTAN

Urtarrilaren 30ean akituko da bertso-paper, ipuin, gutun eta esaldi lehiaketara lanak aurkezteko epea. Xehetasunak 436. aleko 16. orrian.

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8 € ordaindu behar da.
Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da
(nahi izanez gero argazkiarekin).

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ADOS

- **ELIZONDO.**
 - Apartamentu eta pisuak salgai.
 - VPO pisuak salgai.
 - Terreno rustikoak eta urbanoak salgai.
 - **ARANTZA.**
 - Borda eta etxeak salgai.
 - Baserria bere lurrekin errentan.
 - **BERA.**
 - Pisuak salgai.
 - **LESAKA-IGANTZI.**
 - Terrenoak salgai.
 - **DONEZTEBE.**
 - Eraikuntza berriko eta 2. eskuko pisuak salgai.
 - 10 minutura: baserria, borda eta lurrarekin salgai.
 - Etxeak eta bordak salgai.
 - **BAZTAN.**
 - Bordak, baserriak, etxeak eta terrenoak salgai.
 - **PROMOZIO BERRIAK:**
 - **IGANTZI.** AZKEN pisu eta apartamentua trasteroarekin eta aparkalekuarekin salgai.
- INFORMA ZAITEZI!
948 451 841 / 948580705
www.ados-inmobiliaria.com



SUNBILLA
- Promozioa: 83,72 m²
188.450 €

ELIZONDO
- Santiago karrikan
87,60 m², trasteroa
230.250 €

- Braslio Iriarte karrikan
82 m², **131.300 €**

948 450188
638 845560

kalefakzioa, komuna. % 661
765381.

LEITZA. Garajea salgai eta
beste bat errentan emateko.
% 659 751411.

GARAJEAK/LOKALAK 109 Errentan eman

BERA. Garajea errentan
emateko, Correos ondoan.

Aproposa motoak eta bizi-
kletak uzteko. % 948 630881.

ELIZONDO. 45 m²ko loaika
errentan emateko. Denda
eta bertze negozioa jartze-
ko modua. % 626 021643.

LURRAK/ORUBEAK 112 Saldu

LEITZA. 4.000 m²ko lur erai-
kigarria salgai, Basakabi on-
doan. % 699 361194.

ZERBITZUAK 208 Bertzelakoak



Pladur lanak
ERREFORMAK
DEKORAZIOA
SABAI MODULARRAK
ISOLAMENDUAK:
sua - zarata hezetasuna

Tel-Faxa:
948 637 546
Mug:
609 477 277



Baztango
promoción inmobiliaria

SALMENTA:
BERA: 3 etxebizitza berri herrigunean. Igogailua.
BERA: 2.155 m²ko lur eraikigarria.
BERA: 3.188 m²ko lur eremua.
ARANTZA: (Beratik 10 km.ra) 76 m²ko pisua,
3 logela, egongela, sukaldea, bainua. Trastelekuak.
Baratzea. Bista onak.
DONEZTEBE: Bi familiako etxebizitzan, 72 m²ko
pisua eta bajera. Moldatu behar da.

**ESKARI HANDIA IZATEAGATIK, ETXEAK,
PISUAK, BASERRIAK, BORDAK ETA LUR
EREMUAK BEHAR DITUGU.**

URTE BERRI ON!

Kattonberri karrika, 4
31780 Bera, Navarra
Tel/Fax 948 630552
info@baztango.com
www.baztango.com

LANA 301 Eskariak

40 urteko txofer euskaldu-
nak (C+E, D eta ADR kar-
netak dituen) eskaintzen da
lan egiteko. % 679 873492
(Karlos).

LANA 302 Eskaintzak

DONEZTEBE. Ostatu bate-
an neska behar da egunez
lan egiteko. % 948 450383.

Eraikuntza materialen salt-
zailea behar da. Fijoa egite-
ko aukera. Gastuak eta ko-
misioak ordainduko dira. %
607 420420.

BERA. Aluminio lantegi ba-
tean lan egiteko apendizak
eta ofiziala behar dira. % 607
420420.

BERA. Ansonea jatetxean
persona bat behar da osta-
tuan eta komedorean zer-
bitzatzeko. % 948 631155.

BARAÑAIN. Ileapintzailea
behar da. Esperientziarekin,
euskalduna eta langilea.
Marxotik aurrera lanean has-
teko. % 948 185889.

LESAKA. Atxaspi ostatuan
bi zerbitzari behar ditugu as-

teburuetan lanean aritzeko.
% 948 637536.

MOTORRA 501 Salerosketak

Audi 80 TD autoa salgai.
NA-AS matrikuladuna. Ego-
era onean. % 678 445529.

**Motoa garraiatzeko erre-
molkea** salgai, 2 metro lu-
zera eta 1,5 metro zabalera
duena. Egoera hagitz one-
an dago. % 676 131484.

Yamaha CS 50 motoa sal-
gai. Gorria, 2 urtekoa. % 690
095086 (Maite).

Honda CBR 600 F motoa
salgai, 2001. urtekoa. Hagitz
egoera onean. % 617 239361
(ilunabarrean, Xabi).



Citroen Xsara SX 2.0 HDI
90 cvko autoa salgai, 2002.
urtekoa. Horia. Extrekin. %
620 884046.

Citroen Xsara 2.0 HDI au-

MENDAUR MOTOR
 & 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

Mitsubishi DID 3 ate automatikoa eta manuala, Vitara 3-5 ate TD, Opel Astra, Grand Vitara 3-5 ate, Grand Vitara 3 atekoak gasolina, Opel Zafira, Volkswagen Polo, Terrano II, Opel Frontera 3-5 ate, Nissan Almera urte batetako eta Mazda 2. SUZUKIAK ETA VITARAUK AUKERAN

TALLERES SANTESTEBAN
 & 948 450282 • DONEZTEBE

KOTXE IA BERRIEN ESKAINTZA ZABALA (6-12 HILABETEKOAK)

CLIO, MODUS, KANGOO, MEGANE, MEGANE GRAND TOUR, SCENIC, LAGUNA, LAGUNA GRAND TOUR, ESPACE.

BIGARREN ESKUKO KOTXEAK

OPEL ASTRA 2.0, MEGANE COUPE 1.9TDI, HYUNDAI ATOS, PEUGEOT 306 1.9 TD, SUZUKI VITARA 1.6., CITROEN XSARA 2.0 D.

toa salgai. 2000. urtekoa. Extrak baditu. % 610 987823.

Citroen Xsara 1.9 Turbo Diesel salgai, 1998. urtekoa. % 667 717684.

Citroen C15 autoa salgai, NA-AS matrikuladuna. Egoera onean. 2.000 euro. % 948 451569.

ANIMALIAK
602 Salerosketak

20 ardien deretxoak salgai. % 948 634077.

127 ardien deretxoak salgai. % 948 634083 (20:00etatik 22:00etara).

DENETARIK
701 Galdu-aurkituak

Zakur ttikia zuria eta beltza galdu da Lesaka edo inguruan. % 948 638117.

Alkaia industrialdean haur baten urrezko pultsera aurkitu da. % 610 326693.

DENETARIK
702 Salerosketak

Garraio-txartela saldu edo errentan emanen nuke. % 678 608602.

Argi-generadorea salgai, gasoilekoa, estreinatu gabea. % 660 764317.

Motxilazko desbrozadora

salgai, Stihl markakoa. 300 euro. % 679 419321.

Egurra ateratzeko kable-tantea salgai. % 629 417078 (gauetz).

Bigarren eskuko **pikete eta alanbreak** (mallakoak eta

sitsakoak) salgai. % 948 635188.

Lurreko sua salgai, haize beroarentzat bi tartekirekin, haritezko tximini-burua 185x90, kajoia 70x50 eta tximini oina 170x110. Prezio-

BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA
2007KO AURREKONTU OROKOR ETA BAKARRA, HURA BETEARAZTEKO OINARRIAK, ETA PLANTILLA ORGANIKOA

Bortzirieta Euskara Mankomunitatea, 2006ko abenduaren 12an egindako bileran, erabaki zuen hasiera batean onestea 2007ko aurrekontu orokor eta bakarra, hura betearazteko oinarriak, eta plantilla organikoa.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 276. artikuluan xedatutakoari jarraituz, onestitako aurrekontua idazkaritzan egonen da ikusgai, hamabortz egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, herritarrek edo interesatuek espedienteaz azter dezaten eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

Arantzan, bi mila eta seiko abenduaren hemezortzian. Mankomunitateko lehendakaria, Vicente Arotzena Biurrarena.



az solastuko dugu. % 948 635025.

Pianoa salgai, Yamahamarkakoa. Egoera onean, kolore beltza. Prezioaz solastukodugu. % 948630481 (Santos).

Argazki soila: 4 ¢. Bikoitza: 8 ¢. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,29 ¢ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 ¢ko txekea. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.net



AINARA BURGETE MIGELEÑA igantziarrak 6 urte beteko ditu urtarrilaren 4ean. Zorionak eta muxu haundi bat attatto eta amatxoren partetik.



YAIZA GONZALEZ GAMIO gazteluarrak 3 urte beteko ditu urtarrilaren 13an. Zorionak anaia loritz, atata eta amaren partetik.



ITXARO ZESTAU GOGORTZAK 3 urte beteko ditu ilbeltzaren 7an. Zorionak Itxaro zure famili guztiaren partetik.



Zubietako **NAIARA ANSO**. Zorionak zure 4. urtebetetzean, urtarrilaren 10ean. 4 muxu poxpolin. Zure etxeko familiaren partetik (morroska).



Donamariko **IKER** eta Irungo **ANDERREK** 21 eta 7 urte beteko dituzte urtarrilaren 3an eta 4ean. Zorionak eta muxu haundi bana Donamariko familiaren partetik.



Zorionak **AJABIERTXO**: Igantzik eta Lesakako zure fans sutsu haren partetik. Mosolo musu bat.



ZURIÑE ERKIÑE KONDE etxeko printzesak urtarrilaren 14ean 5 urte beteko ditu. Muxu handi-handi bat sorgina. Atata, ama eta familia guzia.



Zorionak nire arrea maiteari. Bizkotxoa ña-ñaam noiz? Muxu goxogoxoa. Markel.



EKHIÑE GARAZO GAMIO gazteluarrak 4 urte bete ditu abenduaren 31n. Zorionak amatxi Engraxi, osaba Xabi eta izeba Anunen partetik. 4 muxu.



EKHIÑE GARAZO GAMIO gazteluarrak 4 urte bete ditu abenduaren 31n. Zorionak ama, Asier eta anaia Markelen partetik. Segi orain bezain bihurri!



AINHOA TELLETXEA IPARRAGIREK 6 urte beteditu abenduaren 24ean. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



IZARO LARRAIOZ ALTZURIK ilbeltzaren 14ean urtea beteko du. Arantzako, Urrozko, Oizko eta Donostiako familiaren partetik pa aunitz.



IZARO LARRAIOZ ALTZURIK ilbeltzaren 14ean urtea beteko du. Muxu pila bat pottoki attatto eta amattoren partetik.




JEXUX MIGELTORENAK abenduaren 25ean 77 urte bete ditu. Zorionak! Jon eta Txisparren partetik,



GEMA MIGELTORENAK abenduaren 27an urteak bete ditu. Jarraitu zaren bezala: xalada, xalada... Muxu handi bat zure senideen partetik. Juana Mari, Rakel eta Agustin.

NORBAIT ZORIONTZEKO, BIDALI BERE ARGAZKIA, TESTUA ETA 0,29 EUROKO 13 SEILO TTIPI-TTAPAKO HELBIDERA:



ttipi-ttapa

Andutzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Urtebetetzeko argazkiak Internet-en ere

www.ttipi.info

luzclinic

KLINIKA ANBULATORIOA BEGIETAKO MIKROKIRURGIAN
OFALMOLOGIA ZENTRUA

www.luzclinic.com



Frantziako Osasun Agintariak kreditatua

Oftalmologiaren beste ikuspegi bat

- 1986 Begietako mikrokirurgia osoa ospitalizatu gabe
- 1990 Kirurgia errefraktagarria Laser Excimer-arekin
- 1993 Anestesia topikoaren erabilera begi-lanbroen kirurgian
- 2001 Ikusmen nekatuaren kirurgia inplante egokiorrak erabiliz
- 2004 Begi-lanbroen kirurgia mikro-ebakidurekin
- 2005 Laser tratamendu pertsonalizatua Topolyzer-ekin
- 2006 Malko-bideen tratamendua mikro-endoskopiarekin

Eskiroz, 31 • B solairuartea • 31007 IRUÑA • Tfnoa: 948 199 999

Juan de la Cruz, 5 • TEKNIKA Zentrua • 20300 IRUN • Tfnoa: 943 660 150

Ferme Dai Baiza, 6 • ZA Layatz II • 64500 DONIBANE LOHIZUNE • Tfnoa: (0033) 559 51 84 00 (FR) - 902 209 299 (SP)

IRUÑA

DONIBANE LOHIZUNE

IRUN



Aseguruak - Seguros:

Parrokia, 21 DONEZTEBE Tel: 948 450 266 Faxe: 948 450 617


**LAISTER BULEGOA IREKIKO DUGU BERAN
EZTEGARA PASEALEKUA 26AN**

**t tipi
t tapa**

Liderrak gure eskualdean

eta **Nafarroa Garaiko Mendialdean**
dauden 111 udalerrriak
kontuan hartuta

IRAKURLE KOPURUAK (milakoetan)



**DATU
ITURRIA:**

**CIES 2006
2. azterketa aldia**



www.lurelitzondo.com

urtarrilak **5**

ERREGEENGUA

01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

urtarrilak **6**

DELOREAN + SEXTY SEXERS

23:30 9€ aurretik 11€ takillan

urtarrilak **13**

LURDJOTAKGONBITES

A.K.A. YORTXDJ

Gorka Irigoien Córdoba

01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

urtarrilak **20**

Anje Duhalde

00:30 10€ aurretik 12€ takillan

urtarrilak **27**

NORTONKLUB

00:30 8€ aurretik 10€ takillan